

hh

hik hasi


ELKARRIZKETA: IÑIGO URRUTIA •
ESPERIENTZIA: ESPEZIE EXOTIKO-
AK • MAROKOKO HEZKUNTZA SISTE-
MA • HEZKUNTZA SISTEMEN ALDAKE-
TAK • PORTUGALETEKO BALLONTI BHI



GATA

Bullying-a
aurrez aurre

Bi ipuin polit eta bixi
famiaren dibertsitatea oinarri harturik.



ELKAR Argitaletxea

Portueteke kalea, 68 bis 20018 Donostia
tel. 943 31 02 67 fax 943 31 02 16
elkarlanean@elkarlanean.com
www.elkarlanean.com






BULLYINGA AURREZ AURRE

Hondarribian gazte batek berez buruz beste egin du ustez ikaskideengandik jasandako jazarpena dela eta.

Gertaera horrek bullying-a denon ahotan jarri du. Erantzukizuna denon dela jakitun, eskolak eta irakasleak egin dezaketenaz hausnartzen dugu.



elkarrizketa

IÑIGO URRUTIA

EHUko Ekonomi eta Zuzenbide Fakultateko irakasleak hezkuntza eskubideak eta euskararen egoera aztertu ditu hezkuntza sisteman. Tesi batean bildu ditu ondorioak.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

BULLYINGA AURREZ AURRE

18 elkarrizketa

IÑIGO URRUTIA

24 esperientzia

Espezie exotikoak, turistak ala inbaditzaileak?

Donostiako Bidebieta institutuko erakusketa orijinala

27 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Marokoko hezkuntza sistema

Itziar Aramaio

31 berriak

Hezkuntza sistemetan legeak aldatze bidean dira

Eskolak euskaldundu behar du! aldarria lau haizetara

Gasteizko haur eskolen gaineko hausnarketa

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Portugaleteko misio lana

Ballonti BHI


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilu eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz
Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Anaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAMGraf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.
Azaleko irudia: Itsa gela elkartearen itsasontziko mintegian ikasleak (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2004-X-19. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitetzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO





Egiozu aurre
MOKOGORRIren
erronkari

Ausartzen al zara?

kontzentrazioa,
ikusmena eta
trebetasuna
garatzeko puzzleak

**6 urtetik
gorakoentzat**

Forma eta koloreetan oinarritutako puzzleak!



Puzzle bat **9€**
Bi puzzleak **16€**

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan



editoriala

azaroa

Eskola antolaketak eragina izan dezake berdinen arteko harremanetan



Abiapuntua errespetua da.
Bigarrenik, sentimenduak, afektibitatea eta emozioak.
Hingarrenik, komunikazioa.
Gero elkarlana dator.
Azkenik, hori egunero praktikan jartzea.

Edozein unetan, egunetan edo astetan, gai honi edo hari buruzko kontuak ateratzen dira lagunartean, etxekoekin, lankideekin, komunikabideetan... Iritziak ematen hasten gara, eta sarritan, aholkuak. Bai, beti edukitzen ditugu besteentzako aholkuak, gomendioak, kontseiluak... Eskola larderiaren edo gure artean hain ezaguna bilakatu den *bullying*-aren kasuan ere sentsazio bera sumatzen da tarteka, bereziki Hondarribiko kasua gogoan izanda. Ongi dago horretaz hitz egitea, baina ez da nahikoa. Hitz egiteaz gain, serio hausnartu behar da; eta garrantzitsuena, inor epaitu gabe.

Badirudi honezkero denok jakin beharko genukeela guztion erantzukizuna dela horrelako gertaerak jazotzea. Iritzi artikulu eta irriti nahiz telebista solasaldi ugaritan irakurri eta entzun da hori: erantzukizuna denona da. Egungo bizimoduaren ereduaz hausnartzen duen oro irits daiteke ondorio berberera. Beraz, epaiek ez dute lekurik, ez zaie zirrikiturik utzi behar, baldin eta irtenbideak bilatu

nahi badira behintzat.

Errespeturik galdu gabe, besteen lekuan jartzea funtsezkoa da horrelako gatazketatik atera ahal izateko. Erasotzaileak jakin behar du bere larderien biktima oso-oso gaizki pasatzen ari dela. Gizarteak jakin behar du erasotzaileak zerbaitegatik duela jokaera hori, bera ere biktima dela eta laguntza behar duela. Gurasoek seme-alaben egoeraren jakitun izan behar dute, eta hori konfiantzak, komunikazioak eta denbora dedikatzeak ematen du. Irakasleek ere neska-mutilak eza-gutu egin behar dituzte, beraiengana gerturatu behar dute. Agintariak ere eredu izaten dira, eta komunikabideetan duten presentziagatik eta eraginagatik, erne jokatu beharko lukete.

Azken finean, esaldi bakar batean bil daiteke gizartearen gertatzen dena: zer ikusi, hura ikasi.

Denok zerbait egin dezakegula jakinik, eskola komunitateak ere bai. Eta eskola komunitateak diogu, ez irakasleak. Heziketa ez baita irakasleen ardurasoilik.

Ekintzen ardurak ezin dira gelako hormen arabera banatu: gela barrukoa irakasleen ardura eta eskolaz kanpokoa gurasoena. Ez, irakasleen ardura ere bada ikasleek herrian lagunartean egiten dutena, eta gurasoena ere bai gelan gertatzen dena. Denok elkarrekin jardun behar dugu. Zertarako? Neska-mutilengandik gertu egoteko, elkarren artean konfiantza edukitzeko, giro sanoa sortzeko, elkar ezagutzeko. Koordinazio hori edukiz gero, denok izango gara gai arazoei eta gatazkei aurre egiteko. Adituen laguntza beharko da tarteka, baina menpekotasunik gabe. Izan ere, edozein arazoren aurrean espezialistengana jotzeko joera arriskutsu bihurtzen ari da. Konponketa horiek egoera puntualetara muga daitezke, eta askotan, arazoaren muina heziketa bera edo eskolaren antolaketan izan liteke.

Hor dago gakoa. Edukiei denbora kendu eta beste zerbait egin behar zaio lekua eskoletan. Badakigu zeri; beraz, jarrai dezagun!

kronika

Irakaskuntzako hiru sareak (publikoa, giristinoa eta Seaska) Hiru Sareta elkartean bildu dira Frantziako Hezkuntza Ministeritzari elkarrekin aurre egiteko. Interes Publikoko Elkartea da Hiru Sareta eta helburu nagusia euskararen aldeko hizkuntza politika bultzatzea izanen da. Hezkuntza Ministeritzak ez ditu errespetatzen hartzen dituen konpromisoak eta aipatu elkartek bakoitza bere aldetik dabilta Ministeritzarekin harremanetan. Hemendik aitzina, elkarrekin gauza gehiago lortuko dituzten esperantza dute. Bost puntuko hitzarmena sinatu dute eta bertan zehazten dituzte eskakizunak: euskararen ofizialtasuna, euskarazko irakaskuntzaren eskaintza sistematikoa, hiru sareentzako medio propioen ezagutza, euskararen presentzia balioestea ikastetxeetan eta euskara komunikazio tresna bezala bultzatzea. Abiatu duten bide honetako lehen hitzordua abenduaren 11rako egin dute. Manifestazioa egingo dute Baionan euskarak irakaskuntzan bere tokia izan behar duela aldarrikatzeko.



Euskararen Legea aldatzeko saiakera Nafarroako Parlamentuan

Aralarrek Nafarroako hizkuntz politika aztertzeko ponentzia bat aurkeztu zuen Parlamentuan. Geroztik agerraldiak egiten ari dira alderdi politikak, adituak eta gizarte eta hezkuntza eragileak, eta otsailean idatziko da azken testua.

Nafarroako hizkuntz politikaren inguruko iritziak ematen ari dira, eta badirudi adostasun nahiko handia dagoela gehien artean: 1986ko Euskararen Legea aldatu egin beharko litzateke egungo egoerara egokitze aldera. Legearen aldaketak eragina izango luke irakaskuntzan.

Gaur egungo zonifikazioa dela-eta, zonalde ez euskaldunean ez dago eus-

karaz ikasteko aukerarik sare publikoan. Horregatik, legearen egokitzapenaren aldeko batzuek zonifikazioaren desagerpena nahi dute, hau da, euskaraz ikasteko eskubidea Nafarroa osoara zabaltzea. Oinarriak eta Kontseilua, aldiz, areago joan dira, eta euskararen ofizialtasuna eskatu dute Nafarroa osorako.

Alderdi politikoei dagokienez, PSN legea aztertzeko prest agertu da, baina inolako konpromisorik hartu gabe. CDN ere ez dago ados gaur egungo hizkuntz politikarekin, baina ez dago legea aldatzeko asmotan ere. IU-EB zonalde mistoa berraztertzeko prest agertu da. EAK, ostera, ezinbestekotzat jotzen du hori. UPNekoek ez dute iritzirik zabaldu, dena baloratzeko eta ikusteke dute. Aralar, berriz, itxaropentsu dago, eta alderdien artean zenbait punturen gainean adostasuna lor daitekeela uste du.

Bien bitartean, Sakanako lanbide eskolako ikasleek euskaraz ikasi ezinik jarraitzen dute. Urriaren 24an kalera atera ziren eta manifestazioa egin zuten Altsasuko kaleetan barna. Eskualde honetan ikasleen % 70ak euskaraz egiten du Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, eta Lanbide Heziketa ere hala egin nahi dute, gero euskaraz lan egin nahi dutelako.

Plataforma bat sortzeko asmoa agertu dute gizarteko beste sektoreak inplika daitezen, arazoa denena baita.

Uste oker bezain faltsua zen euskara
ikasi eta jakitearekin gure hizkuntza salbu
egongo zela

I aki Martinez de Luna



Hitzen ordeez indarra
jaso dute Seaskako ki-
deek Suprefeturari

Seaskako irakasleak eta gurasoak Baionako Suprefeturaren egoitzaren aurrean bildu ziren "Ikastola kexu" banderolarekin. Hezkuntza arloko legeak betetzeko eskatu zioten estatuko ordezkariari. Lanpostu bat eskatzen dute Bernat Etxepare lizeorako eta hila-beteak daramatzate protestak eta mobilizazioak egiten. Frantziako Hezkuntza Ministeritzak bi irakasle lanpostu ematen dizkio Seaskari 73 gazte eskolatzeko, eta horrek lege haustea dakar.

Duela hilabete eta erdi eskatu zion hitzordua idatziz Baionako Suprefetari, eta urriaren 22an hitzordurik ez zutela esanez indarrez kanporatu zituzten Suprefeturaren egoitza aurretik.

Errektoretzarekin ere bilerak egin dituzte, baina egoerari irtenbidea emateko ahalik ez duela dio. Hautetsien Kontseiluko Alain Lammassoure eta Max Bissone bertako hautetsiek ere ez dute ezer lortu. Horregatik, Seaska Parisera begira dago, baina ez diote hitzordurik ematen han. Hain zuzen ere, Estatuaren eta Seaskaren arteko bitartekari lanak egiteko eskatu nahi diote Suprefeturari, baina ez die jaramonik egiten. Dena dela, protesta egiten jarraitzeko asmoa agertu dute Seaskakoek.

Frantziako gobernuaren jarrera hori Ikas-Bik antolatutako Flarep-en 18. topaketetan ere antzeman da. Britainia, Alsazia, Katalunia eta Okzitaniako eskola elebidunetako ordezkariak bildu ziren bertan, baina Hezkuntza Ministeritzaren ordezkariak ez zen izan. Egiazko hizkuntz politika baten beharra aipatu zuten guztiak. Xede horrekin, Kontseilu Nagusiak 1.050.000 euroko aurrekontua onartu zuen euskara eta okzitaniara sustatzeko, iaz baino 300.000 euro gehiago (euskararentzako zatia 600.000 eurokoa izanen da). Bestalde, Euskara Hizkuntza Politikarako Bulegoa izenarekin sortuko den IPE egitura berria tresna egokia izan behar dela aipatu zuen Max Brisson Kontseilu Nagusiko presidenteordeak. Ordezkariak bakarrik eta ofiziala izendatzea garrantzitsutzat jo zuen. Dena dela, aurrekontua zehazteke dago.

Gazteizko udal haur eskoletako hezitzaileen greba bukatu da eta lanera itzuli dira, akordioa lortu ondoren. 80 langilek baiezkoa eman zioten akordioari, 20k ezezkoa eta beste 20 abstenitu egin ziren. Ia bi hilabete huelgan egon ondoren, langile guztiak lan maila bera edukitzea eta diru kopuru berdina jasotzea lortu dute.

Beste zenbait hobekuntzari uko egitea onartu dute eskolen ereduari eustearren.

Akordioa behin-behinekoa da, 2004-05 ikasturterako, eta beraz, hizketan jarraituko dute eredu osoa hitzartu arte.

Nahiz eta lanera itzuli, epailearengana jo dute "beharrezko berme juridikoa" izateko. Beste modu batera esanda, lanpostuetara behar bezalako baldintzetan itzultzen direla eta udalarekin hitzartutako Lan Eskaintza Publikoa ganoraz egiten dela ziurtatu nahi dute.

Langileek adierazi dute garbi gelditu dela afera ez dela diruagatik izan, eskola ereduagatik baizik.

Prozesu osoan zehar hezitzaileek erakutsi duten jarrera txalotzekoa dela adierazi dute LAB sindikatuko eledunek. Euren ustez, "alkateari ezezik, oposizioko alderdiei zein gizarte osoari lezioa eman diote".

Benetako kaltetuak haurrak eta gurasoak izan direla kontuan hartuta, bai hezitzaileak eta bai udaleko ordezkariak pozik agertu dira haurrek eskolara joateko aukera izango dutelako eta gurasoei sortutako arazoak ere bukatu egingo direlako.

Bullying-a aurrez aurre





Jazarpen egoeren erantzukizuna guztiona da

Jazarpena, *bullying*-a... Hondarribiko gertakariaren ondoren denon ahotan dabillen gaia da. Lehendik ere horrelako arazoak ezagunak baziren, oraingoan ondorioak muturre-ra iritsi dira, eta horrek kezka areagotu egin du.

Ez da errudunak bilatzen aritzeko unea, zuhurtziaz jokatu eta hausnartzekoa baizik. Eta bada zer hausnartua: zergatik sortzen diren horrelako jazarpenak, zer egin daitekeen horiei aurre egiteko edota saihesteko, zer egin dezakeen bakoitzak dagoen lekutik (familian, ikastetxean, gizartean, administrazioan...) eta abar.

Eskolan kokaturik, alde batetik, prebentzio lana egin daiteke, eta hori egiten dute Etxarri-Aranazeko ikastolan. Bestetik, daukagun hezkuntza ereduaz eta antolaketaz hausnartu beharko genuke, horrek ere baduelako bere eragina. Juanjo Otaño eta Alex Barandiaranek esku bat bota digute horretan.

“Bullying-a denboran zehar mantentzen den planifikatutako eta nahitako erasoa da, botere gehiegikeriaren egoera dramatikoak adierazten duena, eta nagusitasun-menpekotasun eske-ma ezarrarazten duena erasotzaileak biktimaren gainean”. Horrela definitzen du *bullying*-a Jose Maria Aviles Gaztela eta Leongo STE sindikatuko Lan Osasun arloko arduradunak. Ikasleen artean gertatzen diren jazarpen egoeren inguruko doktorego tesia egin du eta *bullying*-aren aurka egiteko programak diseinatuta ere bai.

Nora Rodriguez *bullying*-ean aditua den pedagogoa ere antzeko definizioa ematen du: *“Ikasketazentzotzat gertatzen den beldurrarazte prozesua da, sistematikoa eta hazten doana, lagun batzuek beste bati egiten diotena taldearen onespenerekin”.*

Ez da arazo berria, betidanik egon baitira baztertutako lagunak, irainak jaso dituztenak, harroputzak eta ahulak. Gehienetan kaltetuek barruan eramaten dute sufrikarioa, isilpean. Batzuetan ondorioak ikusten dira, bestetan ez. Hondarribiko kasuan ikusi dira, eta ho-

rrek ezinegona eta kezka areagotu egin ditu.

Jose Maria Avilesek egindako azterketaren arabera, ikasleen % 6k onartzen du inoiz ikaskideek eragindako tratu txarrak jaso dituela. Tratu txarrak eragin dituztela aitortzen duten gazteak % 5,8 dira.

Garbi dagoena da hausnartu beharra dagoela. Batetik, horrelako jazarpenak zergatik gertatzen diren jakiteko, eta bestetik zer egin daitekeen ikusteko.

Gurutze Zipitria psikoterapeuta eta irakasleak dio umetan gertatzen direla, *“helduok ez garelako behar den bezalako ereduak”.* Izan ere, jasotzen duten ereduak, bai etxean eta bai eskolan, egungo gizarte ereduari erabat lotuta dago. Alicia Stürtze historialariaren iritziz *“behin eta berriz hitz egin da “baliotetan” oinarritutako heziketaren premiaz horrelako arazo guztiei irtenbidea emateko. Haatik, gutxi aipatu dute hezkuntza sistemak bizi duen kontraesana. “Munduko hezkuntza ordena berriaren” ezarpena bizi du orain, eta bere kontsigna nagusiak ba-*



G



lio horien kontrakoak dira, hain justu. Edozein eskolak integratu beharko litzuzkeen justizia, elkarrizketa, elkartasuna, trukea eta tolerantzia zaharkituta gelditzen dira eredu berri horretan. Munduko merkatu librearen neurria egindako ereduak da, eraginkortasuna eta kompetitibitatea helburu dituenak. Kontua ez da hiritar integralak, kritikoak, integratuak eta solidarioak prestatzea, baizik eta "homo economicus" moduko bat, multinazional handien estrategietara eta merkataritza libreira eta haren ideologiara egokitua".

Erantzukizuna denona da

Bullying-a ez da gazteen arazoa, gizarte osoarena baizik. Horregatik, erantzukizuna ere denona da, ez gazteena soilik, irakasleena soilik edo gurasoena soilik. Ondorioak ere, denok jasaten baititugu. Avilesek dioten bezala, "biktimari eragiten dio, noski, ondorioak jasaten dituelako. Erasotzaileei ere bai, nagusitasun-menpekotasun harremanean oinarritutako erlazioak edukitzera ohitzen direlako. Ikusleak ere, ezer egin gabe eta beste aldera begira gelditzen badira, moralki egoera injustuak ikusi eta beste leku batera begiratzen ikasten dute".

Xabier Barandiaranek ere hala dio: "Gazteek bizi dituzten arazoak gizarte arazoak dira, eta konponbideak gizartera apuntatzen du bere osotasunean: familiaren, eskolaren, herriaren zeregin birdefinitu eta indartzera. Arazoa guztiona da, eta guztioi dagokigu ardura; zeregin hori hezkuntza siste-

maren esku edota komunikabideen esku bakarrik geratzen bada, gizarteak porrot egingo du".

Erantzukizuna hartu beharra dago, eta serio, gainera. Elias Mendinueta guraso eta abokatuak eta Mirari Bereziartua coach pedagogoak diote ez dugula lasaitu behar, lasai gelditzeak ez duela ezer konpontzen. "Erantzukizuna, batzuen zuzenagoa bada ere, guztiona da". Ildo beretik mintzo da Koldo Izagirre idazlea ere: "Pedagogiaz espantuka hitz egin eta baliabiderik ematen ez duen politikaria da bakoitza, gelan gertatzen ari dena zuzentzeko gauza izan ez den hezitzailea da bakoitza, semearen ubeldu moral eta fisikoak ezteitzeko gai izan ez den gurasoa da bakoitza, bere burua amildu duena bera da bakoitza... baina batez ere tradizioaren izenean edo eguneroko epelean herrian eredu matxomerketara nagusitzen utzi duen oro da bakoitza".

Zer egin dezakegu?

Ildo horretatik, bigarren hausnarketara heltzen gara: zer egin daiteke? Hasteko, gurasoen eta irakasleen arteko komunikazioa eta elkarlana funtsezkoak dira. Horrekin batera, gazteekiko komunikazioa ere bai; beraien egoera ezagutzeko eurekin egon beharra dago. Harremanak zaintzea funtsezkoa da.

Gurutze Zipitriaren ustez harreman-

Jazarpen egoeren aurrean epairik ez egitea garrantzitsua da, erasotzaileak, erasotuak eta ikuslea, guztiak baitira kaltetuak eta errua botatzeak ez baitu arazoa konpontzen.

nei eta sentimenduei leku gehiago egin behar zaie: "Notez eta antzeko gaiez hitz egiten da klaustroetan, baina irakasle bakoitzaren egoeraz eta ikasleekin dituen harremanez oso gutxi hitz egiten da. Edukiei sentimenduei eta harremanei baino askoz garrantzi handiagoa ematen zaie, eta hori aldatu behar da".

Jazarpen egoeren aurrean epairik ez egitea ere garrantzitsua da, erasotzaileak, erasotuak eta ikusleak, guztiak baitira kaltetuak eta errua botatzeak ez baitu arazoa konpontzen.

Elkarbizitza ahalik eta hobekien bideratzea da egin litekeen gauzarik onena. Bai ikastetxean, bai etxean, bai kallean, bai lantegian... Hainbestetan errepikatzen diren balioak eguneroko bizitzan praktikan jarri eta horien arabera jarraitu behar ditugu. Eta horretarako, gure artean hausnartu eta hitz egin behar dugu. Edonola ere, Avilesen iritziz elkarbizitza giroa hobetzeak ez dakar bullying kasuak desagertzea. "Bi gauza desberdin dira. Elkarbizitza hobetzea da diziplina arazoak, jarrera antisozialak, motibazio falta, interesik eza... konpontzea. Baina bullying-aren jatorria desberdina da eta horri aurre egiteko plan bereziak jarri behar dira ikastetxean".

Avilesek antibullying programa bat proposatzen du, eta hainbat pautak zehaztuta ditu. EILAS sindikatuak liburuxka batean bilduta argitaratu zuen, eta egun agortuta badago ere web orri honetan aurki daiteke: www.stee-eilas.org/lan_osasuna/gaiak/Bullying/BullyingEUSK.htm

Edonola ere, horrelako neurriak hartu aurretik ongi hausnartu behar dela dio. "Presaka jardutea txarra da. Ekin baino lehen hausnartu egin behar dugu. Ekintzak planifikatzeko denbora hartu behar dugu. Administrazioek, arduradun politikoek, hezkuntza arduradunek, profesionalak, familiek... lor dezagula gure zentroak seguruagoak izateaz gain sanoagoak izatea. Zeren hau ez da segurtasun arazoa soilik, baizik eta osasun arazoa: eskola osasuna, afektibitate osasuna, osasun emozionala".

Etxarri-Aranatzeko Andra Mari ikastolan gatazkei eta jazarpenei aurre egiten diete

Etxarri-Aranatzeko Andra Mari ikastolan 2002/03 ikasturtean hasi ziren *bullying*-a lantzen. Irakasle guztiak sentibilizatuta eta erne egotea lortu dute, eta euren arteko etengabeko komunikazioa eta laguntza funtsezkoak direla badakite. Ikasleek, gurasoek, orientatzaileek eta irakasleek, denek hartzen dute parte arazoari irtenbidea bilatzeko orduan.

Ez ziren hasi bat-batean *bullying*-a lantzen, aurretik gatazkak konpontzeko programaketa bat esku artean zuten. Itziar Aldaz eta Txarete Ganboa orientatzaileak gatazka ugariaren aurrean pausatzen ziren, eta horiek bideratzeko beharrak eta interesak bultzata heldu zioten gaiari. EHUko irakasle Ramon Alzaterekin harremanetan jarri ondoren, programa bat jarri zuten martxan. Bitartekari papera zein zen ikasi zuten, gatazkak nola bideratu, nola eseri, nola hitz egin... eta hor hartutako irizpideekin hasi ziren gatazkak bideratzeko.

2002/03 ikasturtean Jose Maria Aviles artikulu bat irakurri zuten, eta bere tesiaren zein materialaren berri jakin zuten. Gatazken eta *bullying*-aren arteko lotura ikusita, gai horri heldzea erabaki zuten.

Urtez urteko prebentzio lana

Azken urteotan hainbat kasuren aurrean aurkitu dira eta denen artean irtebideak bilatzen ahalegindu dira. Baina horrekin batera, prebentzio lanari ekin diote, hau da, prestatzeari. Atzera begirajarrita, zer egin duten ikus daiteke.

2002/03 ikasturtean:

- Material bilketa: aldizkari eta egunkarietako artikulak
- Galdeketa: Lehen Hezkuntzako 3. zikloan eta Bigarren Hezkuntzan galdeketa anonimoa pasa zitzaizen ikasleei tutoretza orduetan. Galderak horrelakoak ziren: zure gelan erasoak gertatzen al dira? Nolakoak? Irainak, agresio fisikoak...? Noizbait erasotua izan al zara? Nola sentitu zara? Zer iruditzen zaizu egin behar dela kasu horietan?
- Ateratako emaitzak tutoretza orduetan landu ziren.

2003/04 ikasturtean:

- Gurasoen iritzia jakiteko, DBHko bilera orokorretan Jose Maria Avilesek proposatzen duen galdeketa pasa zen.
- Orientatzaileetako batek formazioa jaso zuen Jose Maria Avilesekin.
- Bi formazio saio egin ziren klustroan irakasleak prestatzeko. Lehen saioan galdeketa anonimo bat pasa zuten, biziki interesgarria.
- Ikasturte amaieran ikastolako aldizkarian gurasoentzako idatzi bat argitaratu zen gai honen inguruan.

2004/05 ikasturtean:

- Ikasturte honen hasieran, gaia pilpilean zegoela ikusita, ikastolan egiten ari diren lanaz informatu dituzte gurasoak aldizkariaren bitartez.
- Klustroko formazioarekin jarraituko dute. Denen artean adostu ondoren, idatzita eta ikastolako proiektu kurrikularrean sartuta utziko dute horrelako egoeratan zein pauso jarraitu behar diren.
- Gai honen inguruan guraso eskolak antolatuko dituzte.

Jarraitzen dituzten paetak

- 1.- Lehendabizi, eskaera jaso: kezkatuta dagoen ikasle batena lagunik ez daukalako edo iraindu egiten dutelako; kezkatuta dauden gurasoena eskolatik at koadrilan gertatzen denagatik; irakasle bat etortzen denean... Orientatzaileek eta irakasleek denei entzuten diete eta esaten dutenajaso egiten dute, inor epaitu gabe, baloraziorik egin gabe. Hori dena eserita egiten dute, garrantzia emanaz.

Itziar Aldaz eta Txarete Ganboa orientatzaileak.



2.- Informazioa jaso alde guztietatik. Horretarako, denekin biltzen dira, egoeran parte hartu duten guztiekin: irakasleekin, gurasoekin, ikasleekin... Beti, lehenengo, erasotzailearekin. Espero ez duen unean gelatik atera eta orientatzaileek berarekin hitz egiten dute, epaitu gabe: zer dakizu honetaz, badakigu norbait oso-oso gaizki pasatzen ari dela... Hasieran gehiegi ez dutela komentatzen diote orientatzaileek, baina ikusten dutenean ez dutela epaitzen eta badakitela zer gertatzen den, orduan hitz egiten hasten omen dira. Beraiei galdetzen diete zer egin daitekeen egoera aldatzeko, zerbaï proposatzeko.

Erasotzuarekin azkena elkartzen dira.

3.- Lehen mementotik portaera erasotzaileak debekatzen eta mozten dituzte. Baldin badakite irainak egon direla, erasotzailearekin elkartzen direnean, esaten diote ez dutela irainik onartzen. *“Ez baduzue berarekin ibili nahiedo bere lagunak izan nahi, ados, baina ez egin minik, ez kendu gosaria...”*, esaten diote. Normalean erresetatzen dute, edo mugimenduak egoten dira, gurasoak ere kezkatuta egoten direlako eta etxean ere komentatzen dutelako.

4.- Irakasleei gertatzen dena gelan aipatzeko esaten diete, erasotzaileek jakin dezaten eurek badakitela zer gertatzen den. Horrek indarra kentzen die. Ordura arte inpunitate osoz egin duena ezin duela egin konturatzen da erasotzailea.

5.- Garrantzitsua da gurasoekin hitz egitea eta orientatzaileek edo irakasleek ez dutela epaitzen eta ez direla posizionatzen ikustea. Izan ere, hasieran seme-alabak defendatzen hasten dira, baina erasotzailea ere kaltetua dela ohartzean, konturatzen dira lagundu egin nahi zaiela.

6.- Gainbegiratu: irakasleak eta gurasoak informatuta mantentzen dira eta gainbegiratzeko esaten zaie. Erne egon daitezela, euren presentzia areagotu dezatela, ezpoliziak bezala, baina baiegoerak kontrolatuz.

7.- Bidea markatu: jasotako informazio guztia aztertu ondoren, orientatzaileek arazo nola bidera daitekeen aztertzen dute. Kasu batzuetan erasotzuak autoestimua igotzea beharko du, eta beste batzuetan erasotzailea izango da laguntza behar duena.

8.- Jarraipena: erasotzuak asko eskertzen du jarraipena egitea, zermoduz dagoen galdetzea...

9.- Gurasoei eta irakasleei aholkuak eman.

Irakasleen jarrera aldatu egin da

Ikastolako bi orientatzaileak beti egon dira gai honen inguruan sentsibilizatuta, baina orain, irakasle guztiak daude. Itziar Aldaz orientatzaileak dienez, hasieratik erakutsi zuten irakasleek gai honen inguruko kezka. *“Galdeketa egin genuenean, lehenbiziko galdera hau izan zen: zure ustez, erasotzaileak, errespetu falta eta abar gai akademikoak baino garrantzitsuagoak dira, bai ala ez? Eta bigarren galdera: Horrek guztiak curriculumaren barruan egon beharko luke, bai ala ez? Denek baietz erantzun zuten, eta beraz, hor jarrera bat ikusten da”*.

Gainontzeko galderen erantzunak ikusita, konturatu ziren ordura arte ez zutela esku hartzen egoera horien aurrean ezjakintasunagatik eta ezintasunagatik. *“Babesik gabe jokatzeko zuten horrela”* dio Txarete Ganboak. *“Ez badakizu nola jokatu, ez duzu esku hartzen, gauzak okertzeko beldurrez. Neutralitatean mantentzen zara. Zentzu horretan, asko aurreratu dugu. Orain irakasleak beti erne daude eta gurasoak arazoren batekin etortzen baldin badira, jaso egiten dute eta bileretan komentatu. Bullying-a lantzen hasi ginenetik lasaiago, ziurrago sentitzen gara. Horrek ez du esan nahi arazorik ez dagoenik; soilik, arazoak sortzen direnean badakigula nola jokatu denok bateratuta”*.

Batzuetan orientatzaileek bideratzen dute, eta beste batzuetan irakasleek. Mekanismoak eta pautak barneratuta dituzte guztiek.

Irakasleentzako aholkuak

- Erne egon eta moztu.
- Koordinazio lana: informazioa trukatu.
- Gainbegiratu
- Serio hartu eskaerak. Ez esan *“haurren kontuak dira”*, *“jolasten ari dira”* eta horrelakoak. Jolasten ari direnean ondo pasatzen dute, baina norbait sufritzen ari baldin bada edo gaizki sentitu bada, hor ez dago jolasik. Hor muga bat dago. Eta orduan, egoera aldatzeko zer egin daitekeen pentsatu behar da.

Gurasoentzako aholkuak

- Ez hitz egin gaizki beste haurretaz.
- Talde desberdinekin ibiltzen erakutsi seme-alabei, ez beti lagun berberekin. Sarritan entzuten da *“gure koadrilakoa baldin bazara, ezin duzu horiekin ibili. Eta ibiltzen bazara, ez zara gure laguna”*. Guraso batzuek ongi ikusten dute, eta ez dira konturatzen beraiek ez dutela kafea beti berdinekin hartzen. Gauza bat da taldeari leiala izatea edo gaizki esaka ibiltzea. Baina beste bat besteekin ezin dela ibili esatea.
- Balioen transmisioa, errespetua.
- Komunikazioa mantentzea. Erasotzaileek ez dute ezer kontatzen, eta gurasoek oso gaizki pasatzen dute, azkenak izaten direlako zer gertatzen den jakiteaz.

Ikasle erasotzuarentzako aholkuak

- Esan ez sentitzeko errudun esaten dizkietenagatik.
- Esan ez identifikatzeko esaten dioten guztiarekin.
- Irainari halago bat bezala erantzun.
- Tutorearekin hitz egin.
- Inoiz ez erantzun beste irain batekin.

Elkarren arteko komunikazioa funtsezkoa da

Formazioak eta pautak edukitzeak ziurtasuna ematen badu, zer esanik ez elkarrekin komunikatuta egoteak. Hori funtsezkoa dela diote orientatzaileek, eta zentzu horretan, ikastola txikia izatean zorte handia dutela aitortzen dute.

Ikastola honetan tutoretza saioei izugarrizko garrantzia eman diote betidanik. Bigarren Hezkuntzan aritzen da Itziar Aldaz eta astero biltzen da tutoreekin. *“Balioak lantzen ditugu eta saioak prestatzen ditugu. Modu horretan, formazioa jasotzen dute eta sentsibilizatuta daude”*. Ikastola txikia denez, urtetik urtera tutoreak aldatu egiten dira, baina denak pasatzen dira tutore izatetik; beraz, denek jasotzen dute formazioa eta esperientzia. Horrez gain, hamabostean behin gela bakoitzetik pasatzen diren irakasle guztiekin biltzen da Aldaz ikasleei buruz, egoerei buruz edota gertatu den zerbaiti buruz hitz egiteko eta jarrerak adosteko. *“Gauza asko lantzen dira eta komunikazio handia dago. Irakasleak ohituta daude euren artean gauzak komentatzen”*.

Haur eta Lehen Hezkuntzan Txarete Ganboak ez du hainbesteko jarraipena egiten. *“Tutoreek ordu gehiago pasatzen dituzte haurrekin eta hartu eman estuagoa dute. Horregatik, hamabostean behin biltzen naiz tutoreekin”*.

Zer aldaketa lortu dira?

Egindako lanaren ondoren, hainbat lorpen ikusten dituzte Aldazek eta Ganboak, eta garrantzitsuak direla diote, zalantzarik gabe.

Hasteko, *bullying* eta antzeko egoera guztiak jaso eta entzuten dituzte. Lehen batzuk bai, beste batzuk ez, ikastolan gertatzen zirenak bai, besteak ez... Orain denak jasotzen dituzte. Eta gainera, fundamentuz; hau da, hitzordua emanez eta eserita hitz eginez. Lehen horrelako komentarioak modu informalean egiten ziren eta orain askoz serioago hartzen dira.

Irakasleek eskertu egin dute forma-

zio saioak ematea. Pauta batzuk ematea eskatu zuten, horrelako egoeren aurrean nola jokatu jakiteko.

Gelan gertatzen diren gauzek lotura dute kanpoan gertatzen denarekin. Horregatik, esku hartu beharra dagoela argi dute orientatzaile hauek. *“Ez duguk esaten, adituak baizik”* ziurtatzen dute. Euren asmoa arazoak bideratzea izan da beti. Eta hori bai, beti epaitu gabe, baloraziorik egin gabe. Dena dela, kasu batzuetan gurasoek edo ikasleek esan izan dute eskolatik kanpoko arazoak denez ikastetxeak ez duela sartu behar. Orientatzaileak ez daude ados horrekin. *“Noski dela gure arazoa ere. Zeren gu ez gaude hemen Matematika, Historia edo Musika emateko soilik, giza trebetasunak erakuste ere bai”*.

Gurasoek laguntza eske jotzen dutenean, kolaboratzea eskatzen diete. *“Zerbait mementotan gurasoek pauta argiak behar dituzte”* dio Ganboak. *“19 urte daramatzat lanean eta lehenengo gurasoak eta oraingoak ez dira berdinak. Gauza batzuetan oso dinamikoak dira, aktiboak... ez dira guraso txarrak. Baina arauen aldetik oso kilokolo ikusten ditut. Gaur egun haurrak oso preziatuak dira eta erraz uzten zaie. Gurasoak ez dira konturatzen jokaera horiekin haurrek fustraziorako ahalmen gero eta txikiagoa dutela. Eta gero, edozein arazoren aurrean, nola jokatu ez dakitela gelditzen dira. Hor gurasoek badute zer egina”*.

Oso garbi dute denen artean bideratu behar direla arazoak. Elkarrizketan egin behar zaio eta bakoitzak bere eskuetan dagoena egin, batera.

Hasieran erasotua zen pertsonarekin biltzen ziren batik bat. Autoestimua lantzeko, hobeto sentitzen laguntzeko, aurre egiten ikasteko... Baina urte

G A I A

Bullying-a

aurrez aurre

G



hauetako esperientziaren ondoren, besteekin ere egon behar dutela ikasi dute. *“Betiere erasotua baimenarekin. Lehenengo erasotzailearekin hitz egiten dugu. Eta noski, baita ikasleekin ere. Askok gaizki pasatzen dute eta hitz egiten hasiz gero, berehala konturatzen dira zerbait egin beharra dagoela”* azaltzen du Aldazek.

Noski, horretarako isiltasunaren legea hautsi beharra dago. *“Ikasleek ez dute salatari izan nahi, hori oso gaizki ikusia dago”* dio Ganboak. *“Baina bi egoera desberdin bereizten jakin behar da. Bata da aldamenekoak zerbait gaizki egin duenean irakasleari esatea, eta hori ez egiten irakatsi behar zaie. Baita taldeko sekretuak ez konturatzen ere. Baina beste gauza bat da eskubide zapalketa bat egotea, eta horrelakoetan ezin dute isildu”*.

Ikastolako antolaketaren elementu positibotzat hartzen dute adin guztiatako ikasleak eraikin berean egotea. Andra Mari ikastolaren kasuan, Haur Hezkuntzako eta DBHko ikasleak eraikin berean daude. *“Hasieran beldurra ematen zigun bezala, orain ziurtasuna ematen digu”* aitortzen dute biek. *“Handiek ez dituzte hainbeste gehiegikeria egiten txikien aurrean, eredu sentitzen baitira. Irakasleek ere txikiak babesteko jarrera dute eta erneago daude”*.

Juanjo Otaño eta Alex Barandiaran:

“Hitz egiteko espazioak sortu behar dira”

Gertaerak hor daude. Sortu aurretik prebentzio lana egin liteke. Behin arazoa sortu ondoren, aldiz, irtenbidea bilatu ahalik eta modurik onenean. Hori guztion egitekoa da, gizarte osoarena, eta tartean, eskola komunitatearena.


Zergatik gertatzen dira horrelako gertaerak? Zer ari gara egiten? Zer egin dezakegu eskolatik? Heziketa lanaren inguruan hausnartu beharra daukagu, eta agian, hainbat gauza birplanteatu ere bai. Juanjo Otaño eta Alex Barandiaran HUHEZIKo irakasleek hori uste dute.

Eskola eta *bullying*-a. Nola ikusten duzue bien arteko erlazioa?

Juanjo.- Eskola gizartearen isla da eta horren ondorioak ikusten ari gara. Gizartea oso agresiboa da, batak besteari botatzen dizkio gauzak. Hizkuntza politikoa ere oso agresiboa da, oso belikoa. Beraz, gero ezin gara harritu horrelakoak gertatzean.

Hori guztia balioen eta abildade sozialen heziketarekin lotuta dago. Balioa zentzu etikoarekin lotuko dute batzuk, baina azken finean, gure artean elkarbizi behar dugu eta abildade sozialak eduki behar ditugu gatazkak bideratzeko. Haur batzuk ez dituzte, eta irteten diren bezala irteten dira gero. Eta helduoi ere gauza bera gertatzen zaigu. Gauza bat bideratzen ez dakigunean... izugarrikoak muntatzen ditugu.

Alex.- Nik uste dut *bullying*-a muturrera eramandako zerbait dela, baina aldi berean oso komuna da. Haur Hezkuntzan ere modu naturalean gertatzen da; hau da, haurren arteko jokabidean hie-



Alex Barandiaran eta Juanjo Otaño, HUHEZIKo irakasleak.

rariak sortzen dira txikitatik eta gero, testuinguruaren arabera, jokaera agresiboak sortzen dira edo ez. Jokaera oldarkorra hasieran situazionala izan ohi da.

Atxikimenduak zeresan handia du horretan. Atxikimendu segurua ez dutenek, agresibitatea erakusteko probabilitate gehiago dute.

Juanjo.- Zerbait patologikoa edo genetikoa izatea gustatuko litzazuke; karkatura jarri eta kito, salbu gara. Baina ez da hala. Zerbait “naturala” izan liteke, gertatzen den zerbait, eta testuinguruak bideratzen ez duena. Erasotzaileak pertsona inseguruak dira, eta horiei elkarbizitzen erakutsi behar zaie.

Zuen ustez, horrelako gauzak gertatzeko probabilitatea hor dago. Horren aurrean, zer egin dezake eskolak?

Juanjo.- Nik uste dut eskolak funtzio hezitzailea berreskuratu behar duela. Zera pentsatu duen belaunaldi bat egon da: “balioak elizaren kontuak dira, gu laikoak gara eta heziketak neutroa izan behar du”. Ez. Elkarbizitza elkarbizitza da eta hori funtsezkoa da. Zenbaitetan ahaztu egiten da eta ez da lantzen. Bigarren Hezkuntzako irakasleak, batez ere, edukien irakasleak dira eta oso onak, hori ez dut

ukatzen. Baina heziketa hori baino gehiago da. Are gehiago Derrigorrezko Hezkuntza 16 urtera arte luzatu dela jakinda eta gelan interesa duten ikasleak eta interesik ez dutenak daudela jakinda.

Alex.- Eskolak ahalik eta testuinguru seguruenak sortu behar du, ahalik eta lotura seguruenak sortu eta ahal den gehien prebenitu. Zergatik? Gerta litekeelako. Bide horretan, atxikimendua hasieratik lantzea garrantzitsua da.

Ikasleen eta irakasleen artean loturirik ez dagoela ikusten al duzue?

Alex.- Haur eta Lehen Hezkuntzan zaintzen da alderdi hori, baina DBHn ez. Edukiei eta garapen kognitiboari ematen zaie garrantzia, eta alboan uzten dira pertsonak. Edukiak garrantzitsuak dira, baina baita beste gaitasun batzuk garatzea ere. Bestela, gazteak konturatzen dira irakasleek ez dituztela aintzat hartzen eta beren iritziak ez duela lekurik. Zentzu horretan, eskolak asko alda dezakeela uste dut: gatazka egoerak landu, balioak landu... Azken finean, pertsona garrantzitsua dela sentiarazi eta gertutasuna transmititu.

Juanjo.- Helduarekiko atxikimendua oso garrantzitsua da adin horretan. Ira-

kasleak atxikimendu figura dira, bai txikitan eta bai nerabezaroan. Garai horretan gurasoetatik lagunartera pasatzen da lotura, baina heldu baten erreferentzia behar izaten dute, eta hor, irakaslea figura garrantzitsua da.

Atxikimendu hori lortzeko komunikazioa klabea da. Gazteek hitz egiteko beharra daukate. Beraiengana zuzenduz gero, ireki egiten dira. 14 urterekin irakasleak edo tutoreak ikasleekin hitz egitea klabea da. Pozik al dagoen galdetzea, lagunak al dituen, zer egin duen asteburuan... Nik uste dut oso-oso garrantzitsua dela. Hori lortzeko, irakasleen estiloa oso garrantzitsua da.

Nola lor daiteke komunikaziorako estilo hori? Formaziorik ba al dago horretarako?

Formazioa garrantzitsua da, baina irakaskuntzan eragin handiagoa dauka norberak bizi duenak. Beste modu bateara esanda, ideia inplizituek gero hartzen den formazioak baino pisu gehiago dute. Irakasleek historia bat dute: lanean hasi aurretik urte asko egon dira ikasten eta ereduak jaso eta barneratu dituzte. Zorionez edo zoritxarenez eredu horiek errepikatu eta transmititu dituzte. Eta batzuetan, eredu horiek eragin handiagoa dute teorikoek esaten dutenak baino.

Alex.- Hezitzailearen ezaugarri pertsonalek eragin handia dute gazteekin egoteko. Normalean kontrola ezartzera jotzen dugu gauzak okertzeko beldurrez. Gazteek badakite hori eta kontrako efektua lortzen dugu. Beldurra gauza txarra da eta segurtasuna bilatzeko kontrola areagotzea ez da ona.

Eskolako antolaketa begira jarrita, zer aldatuko zenukete?

Alex.- Hitz egiteko eta komunikazioa bideratzeko espazioak sortu behar dira. Adibidez, astelehen goizeko 8:00etan ikasgaia emateko ordez asteburuko konfuntz hitz egin ikasleekin.

Noski, hori ez da bat-batean lortzen. Horretarako, lehenbizi hausnartzen hasi behar da hezkuntza bera zer den. Hausnarketa bermatzen duen antolaketa behar da eta horrek berma ditzala hezkuntza proiektuaren aldaketak.

Juanjo.- Horixe bera egin genuen guk ere. Geure ereduaz hausnartzen hasi ginen eta ikusi genuen gure zeregina ez zela ikasleen profil profesionala garatzea

soilik, baizik eta pertsonala ere bai; hau da, gaitasun teknikoak eta beste gaitasun mota batzuk: liderazgoa, taldean lana egitea, erabakiak hartzeko gaitasuna izatea...

Nik garbi ikusten dut eskola bakoitzak hasi behar duela bere antolaketa aldatzen. Eskola bakoitzeko ekipoak hasi behar du zer nahi duen eta nola lor dezakeen hausnartzen. Gainera, errealitate desberdinak daude, herri bakoitzak bere errealitatea eta ezaugarriak ditu, eta irakasleak ados jarri behar dira zer nahi duten. Ez ideologia mailan, horrez gaindi elkarbizitzeko elementuen inguruan hausnartu behar da. Nik uste dut hori posible dela eta beharrezkoa. Gainera, ikasleek behar dute. Eskola batzuetan hasi dira. Heziketa munduan dabiltzan askok kezka daukate eta gogoa ere bai zerbait egiteko.

Egungo gurasoek seme-alaben heziketaren ardura nagusia eskolaren eskuetan uzten dutela esaten da. Ados al zaudete horrekin?

Juanjo.- Gurasoen aldetik batzuetan utzikeria dago. Eta ni ere guraso naiz. Askotan esaten dugu "hau eskolak egin behar du", eta azkenean, eskolak erakutsi behar ditu edukiak, balioak, erlijioa, sexualitatea, elikadura... Eta non gelditzen da familia? Nik uste dut familia dela hori guztia lantzeko lehen esparrua.

Testuinguru horretan, gurasoek baietz eta ezetz esaten jakin behar dute. Heziketak mugak ditu, bestela bakoitzak nahi duena egiten baitu. Eta muga horiek haurrari segurtasuna ematen diote, behar ditu. Diskurtso atzerakoia dirudi, baina noizean behin haurrak konturatu egin behar du gauzak kosta egiten direla, ahalgina egin behar dela gauzak lortzeko, eta ona da bere ekintzen ondorio positiboak zein negatiboak deskubritzea.

Gaur egun gurasoak oso babesleak gara, eta horrek arazoak sorrarazten ditu.

"Hausnarketa bermatzen duen antolaketa behar da eskoletan, eta horrek bermatuz gero hezkuntza proiektuaren aldaketak"

Alex.- Horrez gain, gaur egun gurasoak eta irakasleak aparteko bi mundu dira. Eta sarritan, elkarren kontra daudela dirudi. Lehen irakasleek autoritate osoa zuten, eta orain askotan gurasoek desprestigiatu egiten dituzte. "Horrek esan dizula hori, niki esango diot!". Nahikoa da! Gutxieneko bat behar da! Irakaslearekin ados ez baldin bagaude, berarengana joan eta aurrez aurre hitz egin behar dugu, baina ez seme-alaben aurrean desakreditatu.

Funtsezkoa da elkarrekin heztea haurrak, gatazkak bideratzea, ihes egin gabe.

Lehen gurasoen inplikazioa handiagoa zen. Gaur egun, batzuek nahiago dute ordaintzea ekintzan parte hartzea baino. Garaiak aldatu egin dira, ikastetxeak ere bai. Ez ditugu faltan bota behar garai haiek, baizik eta egungo egoerara moldatu gurasoak inplikaturatu jarrai dezaten.

Gizartea ere hor dago, eragin izugarria duelarik. Nola jokatu behar dugu horren aurrean?

Alex.- Egia da gizarteko elementuak ez direla batera positiboak eta hezkuntzak hori konpentsatu behar du, hori da bere berezko balioa. Eskolak gizartearen aurka joan behar du, aldaketa elementua izan beharko luke. Bestela, funtzio transmititzailea betetzen du, eta ez funtzio indibidualizatzailea eta sortzailea.

G A I A
Bullying-a
aurrez aurre

G

iñigo urrutia

**EHUko Ekonomi eta Enpresa
Zientzien Fakultateko irakaslea**



Gizartea euskaraz
funtzionatzeko moduan jarri
beharko genuke hezkuntza
sistemaren bitartez



Euskal
Herriko gizarteak
askoz ere
integratuagoa izan
beharko luke
hizkuntzaren
aldetik. Eta hor
hezkuntzak pisu
handia du. Nik
uste dut hizkuntza
integrazio hori
hezkuntzaren
bitartez soilik
gerta
litekeela

Hizkuntza eskubideak eta euskara hezkuntza sisteman izenburua daraman tesia egin du I igo Umutia EHuko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultateko irakasle bizkaitarrak. Abenduan argitaratuko da tesi osoa biltzen duen liburua gaztelaniaz, eta aurrerago euskarazko bertsioa kalera-tuko da, laburragoa, zuzenagoa.

Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide ikasketak egin ondoren, abokatu lanetan jardun zen urte batzuetan eta handik unibertsitateira egin zuen salto; lehenbizi Deustuko Unibertsitateira beka batekin lan egitera, eta ondoren EHura irakasle lanetara. Euskara juridikoari lotutako gaiak izan ditu beti esku artean, euskararen estatus juridikoa aztertze aldera. Hizkuntza eta zuzenbidea, zuzenbidea eta hizkuntza. Tesi honetan hiru garren osagai bat gehitu du: hezkuntza.

Ikuspegi juridikoa askotan aspergarria izan litekeela aitortzen du, baina gauza interesgarriak ere badituela azpimarratzen du, aldi berean. Sententzia oso interesgarriak omen daude, eta asko ikas omen daiteke. Printzipio juridikoez esaten dutenetik abiatuta, gauzak alda daitezkeela dio.

Zerk bultzata hartu zenuen hizkuntza eskubideak eta hezkuntza lotzen dituen gai honi buruzko tesia egiteko erabakia?

Beti izan dut argi hizkuntzari buruzko tesi juridiko bat egin nahi nuela, euskarari lotutako tesi juridiko bat. Euskararen normalkuntza prozesuari begira, hezkuntzatik abiatzea egoki iruditu zitzaidan, oinarri-oinarrietatik abiatzea.

Tesi bat egiten denean, ekarpen bat egin ohi da. Zureak zer ekarpen egiten du?

Batetik, atzera begira jarri naiz eta historian zehar euskarak eta irakaskuntzak zer lotura izan duten aztertu dut, baina ikuspegi juridikotik. Sarritan atzera begira jartzen garenean, iragan gertuari begiratzen diogu gehienbat. Ni saiatu naiz XVIII. mendetik abiatuta, testuinguru historiko bakoitzean zein arau zeuden indarrean ikusten: zer ikuspegi arautzen ziren, zer titulu zeuden, estatuak nola joan ziren arauak egiten... eta hori guztia Euskal Herrian erkatzen.

Bestetik, etorkizunari begira jarrita, diagnostiko bat egin dut. EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko arazo nagusiak zein diren aztertu dut eta oraindik hausnarketagai diren erronka batzuk badauzkagula ikusi dut. Adibidez, integrazio kontzeptua. Euskal Herriko gizarteak askoz ere integratuagoa izan beharko luke hizkuntza aldetik. Lurralde bakoitzeko egoera desberdina da, baina finean, ikuspegi orokor batetik begiratuta, nik uste dut beharrezkoa dela gizarte integratuago bat sortzea. Eta kohesio hori hizkuntzaren aldetik bilatu behar dugu. Desberdintasun administratiboak badira eta aldaketa kultura batzuk behar dira. Euskal Herri oso integratua lortzeko hizkuntzaren integrazioz abiatu behar dugu, euskararen bidezko integrazioz. Abiapuntu horretatik hasi behar dugu denok.

Hizkuntzaren bidezko integrazio horretan, zer funtzio du hezkuntzak?

Kohesio hori hizkuntzaren bitartez bilatu behar da, eta hor hezkuntzak pi-

su handia du. Hezkuntza sistemak hiru ezaugarri izan behar ditu, eraldatzailea izan behar da, integratzailea eta desberdintasunen orekatzailea. Hiru horiek badute hizkuntza aurpegirik. Hau da, Euskal Herriko hezkuntza sistemek hizkuntza eraldaketari bide eman behar diote, hizkuntzaren bitartez gizartearen integrazioari bide eman, eta hizkuntzen arteko desorekak, hezkuntzaren bitartez orekatu behar dira. Nik uste dut hizkuntza integrazio hori hezkuntzaren bitartez soilik gerta litekeela.

Zentzu horretan, hezkuntza sistemak ezin du, orain arte bezala, bi hizkuntza elkarte sortu: batzuk euskara ezagutzen dutenak eta besteak ezagutzen ez dutenak. Hori ezin da. Hizkuntza hesi hori gainditu egin behar da eta hortik doa nire hausnarketa: integrazioak izan behar du helburua, eta horri begira akaso hezkuntza eredia bera aldatu behar da. EAEn, adibidez, gertatutako aurrerapauso kualitatiboak azpimarratu behar dira, kalitatea eta abar, baina integrazioari begira bada oraindik zer hausnartzerik, hezkuntza sistemak ez baitu lortzen hizkuntza integrazioa.

Hausnarketa hori, akaso, hausnarketa orokorrago baten barruan kokatu beharko litzateke. Agian galdetu beharko genuke normalkuntza prozesuaren azken helburua zein den. Katalunian, esate baterako, hori oso argi daukate: hizkuntza propioari ematen zaio lehentasuna. Hizkuntza eskubide-



ak hizkuntza propioan zein Katalunian ofiziala den beste hizkuntzan bermatzen dira, baina gizarte bezala, normalkuntza prozesuaren azken puntua zein den oso argi dago. Uste dut Euskal Herrian hausnarketa horretan askoz gehiago sakondu behar dugula eta hori dutesian diodana. Nik ez dakit, baina ez zait iruditzen etorkizuneko gizartea gizarte elebidun bat izan behar denik, baizik eta kide eleanitzez osatutako gizarte euskalduna. Hau da, gizarteko partaideek eleanitzak izan behar dute etorkizunean, baina gizartea bera euskaraz funtzionatzeko moduan jarri beharko genuke hezkuntza sistemaren bitartez.

Zer desberdintasun ikusten dituzu gizarte elebidunaren eta kide eleanitzez osatutako gizarte euskaldunaren artean?

Gizarte elebidunean, bi hizkuntzatan funtzionatu ahal izateko planifikazioa egiten da administratiboki: kartel guztiak bi hizkuntzatan, seinale guztiak bi hizkuntzatan...

Kide eleanitzez osatutako gizartean hizkuntza propioari, gure kasuan euskarari, lehentasuna ematen zaio. Maila desberdinetan daude. Horretarako berezko hizkuntzaren kontzeptua garatu behar da juridikoki eta lehentasuna eman. Dena dela, horrek ez du esan nahi, bi hizkuntzak ofizialak diren hei-

Gurasoei ematen zaien hizkuntza ereduaren arteko aukeraketa eskubideak ezin du baldintzatu euskararen ezagutzaren bermea. Hizkuntza ereduak izaera instrumental hutsa dute, aldiz, euskararen ofizialtasunari lotu behar dizkiegu ezagutza helburuak. Bitartekoek ez dute helburua baldintzatzerik. Eta hala bada, bitartekoak aldatu beharko dira



nean, hizkuntza eskubide indibidualak errespetatu behar ez direnik. Esan nahi dena da, gizarteko funtzioak printzipioz euskaraz burutu beharko lirakeela, eta neurri berean administrazioak hizkuntza eskubideak bermatu beharko lituzkeela. Ofizialtasunak (bikoitza) eta hizkuntza propioaren kontzeptuak plano juridiko desberdinetan operatzen dute. Aurrena hizkuntza eskubide indibiduali lotuta dago eta bigarrenak izaera soziala, funtzionala, du. Kataluniako eredia eta eredu bakar horretarantz abiatu beharko genukeela uste dut.



Zer bide proposatzen dituzu eredu bakarrerantz jotzeko?

Gaur egungo legediatik abiatuta trantsizio hori nola egin beharko litzaitekeen edo zer babes juridiko dagoen aipatzen dut tesian.

Uste dut egungo legedia beste era batera ulertu beharko dugula, beste interpretazio batzuk egin behar ditugula. Hezkuntza prozesuaren barruan euskararen ezagutza eraginkorra integratu behar dela iruditzen zait. Hori ezin da kanpotik baldintzatu. Hau da, gurasoei ematen zaien hizkuntza aukeraketak (hizkuntza ereduaren arteko aukeraketa eskubideak) ezin du baldintzatu euskararen ezagutzaren bermea. Hizkuntza ereduak izaera instrumental hutsa dute, aldiz, euskararen ofizialtasunari lotu behar dizkiegu ezagutza helburuak. Bitartekoek ez dute helburua baldintzatzerik. Eta hala bada, bitartekoak aldatu beharko dira. Ikastetxei aitorturiko autonomian oinarri hartuz, ezagutza helburuak bermatzea hezkuntza prozesuaren barnera ekarri behar da. Horrek esan nahi duena da, ezagutza helburuak bermatzeko euskararen presentzia behikularra areagotu behar bada, ba hala egin beharko dela, ofizialtasunaren eragin juridikoak bermatzaren bidean. Beraz, iruditzen zait bada, babes legal nahikoa hizkuntza ereduaren deskonfigurazioa behar dela esateko. Lege aldaketa askorik gabe posible da euskararen presentzia behikularra gehitzea.

Beste bide osagarri batzuk ere badira. Esate baterako, hizkuntza planifikatzaileak jartzea ikastetxeetan. Ikus eta neur dezatela gune bakoitzean zein testuinguru soziolinguistikotan txertatzen den ikastetxea, eta horren arabera azter dezatela nolako presentzia beharko lukeen euskararen teknikariak. Neur dezatela zein baliabide dituen ikastetxeak, nola gehitu behar den euskararen presentzia... Horrek eredu klasikoaren deskonfigurazioa ekarri beharko luke.

Juridikoki hori egiteko aukerarik ba al dago?

Bai, hizkuntza normalkuntza pro-

zesuei lotuta, araudi aldaketak egin daitezke. Hori gertatu zen Katalunian; dekretu bidez katalanaren presentzia behikularra gehituz joan zen. Hori izan zen Auzitegi Konstituzionalean errekurtsoa jartzearen arrazoiak. Araudi bidez katalanaren presentzia behikularra gehituz joan zenez, ordura arteko hezkuntza sistema kolokan jarri zen. Azken dekretuak zioen Gaztelania ikasgaia eta beste ikasgai bat gaztelaniaz egin zitezkeela, baina gainontzekoa katalanez. Auzitegi Konstituzionalean planteatu zen auzia eta, behin ebatzita, berriz ere Espainiako Auzitegi Gorenera. Haren sententzia zera izan zen: Auzitegi Konstituzionalaren sententzian oinarrituta, araudiari bide zabala eskaintzen zaiola hizkuntzaren normalkuntzan eragiteko, eta araudia nahiko tresna egokia izan daitekeela aurrerapauso baten gainean beste bat egin dadin. Legea baliabide juridiko zurrengia bihur daiteke berez dinamikoa izan behar den normalkuntza prozesuari behar bezala heltzeko. Dekretuari bide zabala utzi zaio hizkuntza eskubideetan eragiteko.

EAEren kasuan, dekretu bidezko horrelako aldaketarik egin al liteke?

Bai. Euskal Eskola Publikoaren Legeak oso argi esaten du Eusko Jaurlaritzak aztertu eta berdefinitu behar dituela arau horiek, baina aldi berean, oso argi uzten du hizkuntza ereduak izaera instrumentala dutela. Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia ere oso argia da horretan: irakaskuntza sistemak edo ereduak izaera instrumentala izan behar dute, xedea hizkuntzen ezagutza bermatzea delako.

Alde horretatik, bigarren faktore horri begira egin behar den azterketa zera da: zenbateko presentzia behikularra behar da euskararen ezagutza nahikoarekin atera daitezen ikasleak. Azterketa hori egin ondoren, presentzia behikular hori ezarri beharko litzaiteke ikastetxeetan, legeak ezartzen duen helburua bermatzea delako lehentasunezkoa. Eta hori ez dago mugatzerik kanpotik gurasoek egiten duten



aukeraketaren bitartez. Kanpotik egiten den aukeraketak ez dauka baldintzatzerik hezkuntzak bermatu behar dituen helburuak. Nahiz eta hori horrela izan, ez da ahaztu behar hizkuntza aukeratzeko eskubideak lege oinarria duela, beraz, eredu klasikoaren deskonfigurazioaz hitz egin daiteke, baina eredu bakarrerantz abiatzeko, lege aldaketa egin beharko litzateke.

Juridikoki ereduaren sistema alda baldin badaiteke, zergatik ez da aldatzen?

Politikoki kostu handiko kontua izango dela pentsatzen dut. 1992an sinatutako eskola itunean jada esaten zen hizkuntza ereduak berrikusi behar zirela, baina politikoki zuhurra zirudielako mantentzea.

Horrez gain, hezkuntza arloa konplexua da eta hainbat faktorek eragiten dute. Esate baterako, funtzionario nahikoak behar dira trantsizio hori garatzeko. Gaur egungo arazo nagusietako bat hori izan liteke: irakasleen aldetik prestakuntza nahikorik ez dagoela aldaketa hori egiteko.

Birziklaia prozesuak ugari izan dira eta emaitzak positiboak izan direla uste dut, eta hori azpimarratu egin behar dela. Baina hori esan ondoren, baita ere esan behar da hezkuntza sistemak ezin dituela bi hizkuntza elkarte sortu. Integrazio printzipioa eraginkorragoa bihurtu behar du.

Gaur egungo ereduaren sistema bi hizkuntza elkarte sortzen ari dela uste al duzu?

Banaketa sistemaren erroka nagusia hori gainditzea izan bada ere, gain-

ditzerik ez duela izan uste dut. Eta hori da hezkuntza sistemak egiterik ez daukana. Integrazioa lortu behar du. Ez dauka bide ematerik hizkuntza hesi bat sortzeari, eta hori gainditzeko neurriak hartu behar ditu. Ondorio hori ez da nahita bilatutakoa, noski, baina praktikan hala gertatzen denez, konponbidea bilatu behar zaio berehala. A ereduak ez badu euskalduntzen, hezkuntza sistemak zerbait egin behar du Euskal Herriko gizartearen hizkuntza integrazioa gauzatzeko. Bestela, oso egoe-
ra okerrera joango gara.

Beraz, bi aukera daude: A ereduaren inhanizoz hiltzen uztea edo ereduaren sistema aldatzea. Lehenengo bidea A ereduaren balizko iraungitze dataz baliatzen da, baina ez dela oso zuzena iruditzen zait. Askoz ere zintzoagoa litzateke aldaketen bitartez sistema bakarrerantz abiatzea.

1992ko Europako Hizkuntza Gutxituen Karta 2001ean sinatu zuen Espainiako Gobernuak. Zer ondorio ekarri ditu?

Kartak konpromiso maila desberdinak hartzeko aukera ematen du. Espainiako Gobernuak hizkuntza ofizialei begira konpromisorik altuenak hartu ditu, eta hizkuntza ofizialak ez diren kasuan malgutu egiten ditu bere konpromisoak.

Nola ikusten duzu Nafarroako egoera Karta sinatu ondoren?

Nagusiki zonifikazioa berrikusi behar dela uste dut. Europako Hizkuntza Gutxituen Karta indarrean sartu denetik, zonifikazioa beste modu batera irakurri behar da. Zonifikazioak ezin du balio euskararen eskaria blokeatzeko. Horretarako baliagarria bada, edo izatez eragin hori sortzen badu, ez litzateke zilegia izango. Zonifikazioak soilik balio dezake baldin eta testuinguru soziolinguistikoko bakoitzean euskararen aurrerapausoei egokitzeko bada. Horretarako baliagarri ez bada, ez litzateke Europako Kartaren arabera izango.

Zonalde mistoan euskararen egoe-

Ez zait
inuditzen
etorkizuneko
gizartea gizarte
elebidun bat izan
behar denik, baizik
eta kide eleanitzez
osatutako gizarte
euskalduna

Hezkuntza
sistemak ezin du,
orain arte bezala, bi
hizkuntza elkarte
sortu: batzuk
euskara ezagutzen
dutenak eta
besteak ezagutzen
ez dutenak.
Hizkuntza hesi hori
gainditu egin behar
da

Europako
Hizkuntza Gutxituen
Kartaren kontrakoa
da Nafarroako
zonalde ez
euskalduneko
egoera. Kartak garbi
dio ez dagoela
mugatzerik
euskararen
irakaskuntza
euskaraz ematen
delako; hots, arrazoia
ezin liteke izan
hori

ra eta hedapena ez dira oso argiak izan, eta orain, Kartan oinarrituta, esan liteke Espainiako Gobernuak hartu dituen konpromisorik nagusienak zonalde mistoan aplika daitezkeela zalantzarik gabe.

Eremu ez euskaldunean Vasconcearen Legeak ez du baimentzen euskarazko irakaskuntzarik. Zer dio Europako Kartak horren gainean?

Europako Kartaren kontrakoa da. Garbi dio ez dagoela mugatzerik euskararen irakaskuntza euskaraz ematen delako; hots, euskara ezin liteke arrazoi izan mugak jartzeko. Mugatu liteke irakaskuntza sistema hori ez bada egokitzen arau kurrikularretara, kopuruetara edo beste zerbaitera. Baina ez dago mugatzerik hizkuntza gutxitu batean irakasten delako. Ikastetxe horiei baimena ez ematearen arrazoia baldin bada euskara erabiltzen dutela irakaskuntzako hizkuntza bezala, ez baimentze hori Europako Kartaren kontrakoa izango litzateke erabat. Eta baita nazioarteko beste hitzarmen batzuen kontrakoa ere. Guztiz antijuridikoa litzateke.

Nafarroako Gobernuak I eta J eredu berriak jarri nahi ditu ingelesa hizkuntza behikular moduan sartuz eta euskaren kaltetan.

Kanpoko hizkuntzak eta hizkuntza propioak ez dira maila berekoak. Beraz, hizkuntzaren garapena eta horiek ezagutzeko eskubidea gizartearen garapenari lotua dago, eta babestua dago nazioarteko zuzenbidean.

Kanpoko hizkuntzak ikastea, ordea, beste plano batean kokatzen da. Aberastasun pertsonala dakar, eta hori hala izanik, hezkuntza sistemak atzerriko hizkuntzen ezagutza bermatu beharko luke. Baina horrekin ez da nahastu behar hizkuntza propioaren hedapen juridikoa eta kontzeptuak hezkuntza sistemaren gainean islatu behar dituen eragina juridikoak. Euskara Nafarroa osoko hizkuntza propioa da, hala dago ezarria Vasconcearen Legean gaztelaniarekin batera. Eta horrek esan nahi du gizarte garapenerako, eta gizarte

te funtzio komunikatiboak bideratzeko hizkuntza bihurtu behar duela. Inorri bururatuko al litzaioke gaztania eta ingelesaren arteko hautaketa eskubidea Madrilen proposatzea?

Gurasoak euskara edo ingelesa aukeratzeko jartzera errorea iruditzen zait. Batetik, hizkuntzek ez dutelako maila berean funtzionatzen. Eta bestetik posible delako Nafarroako hizkuntza propioak ezagutzea hezkuntza sistemaren bidez eta horrez gain kanpoko hizkuntza bat edo bi. Gurasoak aukeraketa horren aurrean jartzeak irizpide politiko bat erakusten du.

Irizpide politiko horren aurrean, ez al da posible zerbait egitea?

Nafarroan hizkuntzaren gaiak pisu politiko handia du. Euskararen normalizazioaren alde edo kontra jartzea posizionamendu bat da. Eta horrek ez dauka logikarik. Ez dago ulertzerik hemendik at. Nafarroa da bere hizkuntza propio baten kontra legistlatzen ari den Europako herri bakarra, eta hori ez dago ulertzerik. Frisiako lagun batek hala esaten zidan, ez zegoela ulertzerik.

Ikuspegi juridikotik hizkuntza propioari lehentasuna eman behar zaio. Beraz, administrazioak hizkuntza horren ezagutza sustatu beharko luke, hizkuntza propioa delako kolektibo horren bereizgarria.

Egia da, ordea, Nafarroan, eta baita EAEn ere, hizkuntza propioaren kontzeptua ez dagoela garatua.

Eta zer ondorio dakartza horrek?

Nafarroan bi hizkuntza hartzen dira propiotzat: euskara eta gaztelania. Horrek propioaren esanahia edo kontzeptua neutralizatu egiten ditu. EAEn, adibidez, bi hizkuntza ofizial daude, baina bat da propioa, euskara.

Hizkuntza ofizialtasunak eskubideak sortzen ditu, baina hizkuntza propioak esan nahi du gizarte bezala gartzeko aukera zabalitzen duela. Hau da, hizkuntza horretan gizarte funtzio guztiak burutu behar direla. Konpromiso berezi bat agertzen du propiotasun horrek. Eta Nafarroan kontzeptu hori neu-

tralizatu egiten da; bi hizkuntzak propioztat joz gero, ez da bata bestearen gainetik jartzen, biei lehentasun bera ematen zaie.

Dena dela, horrek argi uzten du propioak ez diren hizkuntzak ezin pareka daitezkeela propioztat dituen hizkuntzekin, ingelesa kasu.

Frantziako Gobernuak ez du Europako Hizkuntza Gutxietuen Karta sinatu oraindik. Zer irakurketa egiten duzu?

Egoera erabat anakronikoa dela iruditzen zait. Karta hori sinatzekotan izan zenean (zuhurtzia handiz), Estatu-ko Kontseilu Konstituzionalak esan zuen kartak hizkuntza eskubide kolektiboak zekarzkie neurrian, Frantziako Estatuak ez zeukala sinatzerik. Eta hala gertatu zen. Konstituzioa aldatu behar-ko litzateke. Ez dira izango Europan estatu asko sinatu gabe gelditu direnak. Hain zuzen, orain Europako Batasunean sartu nahi duten estatu kide berriei baldintza bezala ezartzena da Karta hori sinatzea eta gutxieneko hizkuntza berma batzuk barneratzea. Baina Frantziaren kasuan ez da gauzatu.

Horrek argi uzten du Frantziako testuinguru politikoan pisu ikaragarria duela hizkuntzaren gaiak, frantsesa beti izan baita Errepublikako elementu aglutinatzailea. Baina hori ere demokratizatzen joan beharko da, gaur egungo egoera erabat antidemokrati-koa baita. Edozelan ere, Kartak hizkuntza gutxituen babeserako Europako estandarra agertzen du; eta hala izanik, Frantziak ez du beste biderik, hurbilpen prozesua abiaraztea baizik.

Euskara hizkuntza ofiziala ezenez, euskarazko irakaskuntza ere ez.

2001. urtean Frantziako Hezkuntza ministeritzak hezkuntza elebiduna eraberritzeko araudia onartu zuen. Frantziako historia modernoan, lehenbiziko aldiz arau juridiko batekin Iparraldean aspaldi existitzen ziren hizkuntza ereduak aintzat hartu zituen: murgiltze eredu, ordu pareko eredu eta euskara ikasgai bezala hartzen duen eredu.

Araudi horiek errekurrituak izan ziren (irakaskuntza sindikatu batzuen ekimenez) eta 2002ko urrian, Estatu-ko Kontseiluak lehen bi ereduak deuseztatu zituen. Estatu-ko Kontseiluko jurisprudentzia oso mugatua da. Bi hitzetan laburtuz, zera esaten du: araudiz ez dagoela eskubide horiek aitortzerik. Zergatik? Legeek ez dutelako jasotzen hizkuntza gutxituetan irakaskuntza jasotzeko eskubidea. Eta jaso gabe dagoenez, ez dago arautzerik. Azken finean, ez dagoela lege babesik dio. Euskara, korsikera, okzitaniara edota beste hizkuntza gutxituak ikas daitezkeela dio, baina ikasgai bezala hartuta. Hizkuntza horietaz baliatuz ikasteko lege aukerarik ez dago.

Frantziako Estatu dezentralizazio prozesu batean murgildurik dago. Horrek biderik ireki al lezake?

Interesgarria izan liteke Iparralde lurralde kolektibitate bezala eratzeari begira. Eta baita hizkuntzari lotutako zereginak dezentralizatzeko ere. Iparraldean lurralde kolektibitate bat edo departamendu bat sortzen bada soilik etor liteke euskararen ofizialtasunari bide emango liokeen marko juridiko berri bat. Korsikako eredu oso aberasgarria gerta dakiguke bide horretan.

Korsikako eredu egokia iruditzen al zaizu?

Oso kasu interesgarria dela uste dut. Estatutu berezi bat onartu zen eta korsikeraren irakaskuntza orokortzeko artikulua batzuk baziren. Egia da hori ahulduz joan zela, baina gaur egun era orokorrean eskaintzen da korsikerazko irakaskuntza. Iparraldean oraindik urrun gaude horretatik.

Irakaskuntzaren funtzioa funtsezkotzat jotzen duzu Iparraldean ere euskararen etorkizunerako?

Bai. Inkesta soziolinguistikoek diote euskara galbidean dagoela eta hori saihesteko neurri bakarra irakaskuntzaren bitartez euskararen ezagutza orokortzea dela. Nik ditudan datuen arabera, euskara edo euskaraz ikasten dutenen ehunekoa nahiko baxua da. 2-



11 urte bitartean %27k euskarazko eredu-
duan ikasten du edo euskara ikasgai bezala du; eta % 72k frantses hutsean ikasten du. 11-18 urte bitartean, hots, Bigarren Hezkuntzan, ehunekoa askoz ere txikiagoa da, % 7 inguru.


EAEn, Nafarroan eta Iparraldean, hiruretan egoera desberdina dela ikusita, hezkuntza eredu bakarrerantz nola abia gintezke?

Erritmo desberdinak ezarri behar-ko lirateke, baina uste dut integrazio kontzeptua baliagarria dela hezkuntza sistema guztietarako eta orokorrean hartuta. Zer daukagu komunean? Hezkuntza sistemak zer izan behar du? Izan behar du eraldatzailea, integratzailea eta desberdintasunen orekatzailea. Hiru alderdi horiek hartu eta lurralde bakoitzean ezarri behar dira.

Hau guztia martxan jartzeko sakoneko hausnarketa bat egin beharra aipatu duzu. Nork egin behar du?

Gizarte osoak: irakasleek, gurasoek, ikasleek, erakundeek, politikariek... Euskal Herriak berez duen dinamizitatean oinarrituz hausnarketa egin behar da, bai. Euskararen Kontseilua badabil horretan, eta gizarte aldetik zer aldaketa eman behar diren aztertzen ari da, etorkizuneko Euskal Herriak hizkuntza aldetik nolakoa izan behar duen aztertzen ari da, euskararen gizarte mugimenduetatik zer egin beharko litzatekeen.

Horrez gain, maila politikora ere eramane behar da eztabaida hori. Maila horretan ere eztabaidatu behar da hizkuntza aldetik etorkizuneko Euskal Herriak nolakoa izan behar duen. Eta behin hori argituta, hezkuntza sistemaren bidez eragin ahal izango da.



Espezie exotikoak turistak ala inbaditzaileak?

Erakusketa ugari egiten dira ikastetxeetan, baina iazko ikas-turte bukaeran Donostiako Bidebieta institutuan egin zutena berezia izan zen: espezie exotiko inbaditzaileen erakusketa.

Batxilergoko 2. mailako ikasleen ideia izan zen erakusketa egitearena, behin gai hori lantzen ari zirelarik, egokia iruditu baitzitzairen beste ikaskideei horren berri ematea. Miguel Ibañez irakaslea ikasleak adina emozionatu zen. Horma irudi informatiboak jartzeaz gain, animalia eta landare exotiko inbaditzaileak bildu eta jarri zituzten ikusgai: Japoniako sargazoa eta falopia, Panpako belarra, Amerikako karramarroa, ganbusia, Floridako dordoka... Ikusgai izan ziren espezie horietako gehienak planetako 100 arriskutsuen artean sailkatuta daude.

Zer da espezie inbaditzailea?

Espezie inbaditzailea da leku batean berezkoa izan ez eta hara gizakiaren bidez iristen den izaki biziduna. Horietako batzuk ez dira ingurune berrira egokitzen eta desagertu egiten dira. Beste batzuk, aldiz, egokitu eta ugaltu egiten dira, baina espezie autoktonoenkin bizirauteko lehian desagertu egiten dira. Beste batzuek aurrera egiten dute

eta espezie inbaditzaile bihurtzen dira. Eta orduan hasten dira arazoak. Gerta liteke, adibidez, lehen landare asko zeuden zelai batean, gero kanpotik ekarritako bat bakarra gelditzea.

Izan ere, espezie inbaditzaileek autoktonoak jaten eta desagerrarazten dituzte. Horrek, fauna eta flora guztia alda dezake, eta baita kalteak eragin ere. Esate baterako, Itsaso Beltzean medusa bat ikaragarri zabaldu zen, eta landareak ezezik, hango arrain guztiak akabatu zituen. Kaspio itsasora zabaltzeko beldur dira eta hori geldiarazten saiatzen ari dira, besteak beste hor kabiarra dagoelako.

Edonola ere, eragindako kaltea ez da berdina kasu guztietan. Badira arazo larriak eragin dituzten espezieak: karramarro gorria, zebra muskuilua, alga hiltzailea... Beste batzuek arazo arina-

goak eragin dituzte. Eta leku batetik bestera ere aldea nabari da. Esate baterako, ganbusiak Gipuzkoan eragindako arazoa ez da hain larria, baina bai, aldiz, Valentziako lurretan. Han "saramuc" arrain autoktonoaren desagertzea eragin dezake. Era berean, Japoniako falopia ez du kalte handirik eragingo Andaluzian eta Extremaduran, hezetasun handia behar baitu. Aitzitik, oso arriskutsua bilaka daiteke Euskal Herriko ibai ertzetako ekosistemarako.

Nola iristen dira?

Bi modutara ailegatzen dira: gizakiak berriaz ekarrita eta gizakiak nahi gabe ekarrita.

Gizakiak propio ekartzen dituenetan, hainbat erabilpenetarako ekartzen ditu: nekazaritzarako edo abeltzantzarako (koipua, Amerikako bisoia...);



etxeak eta lorategiak apaintzeko (sasia-kazia, alga hiltzailea, Japoniako falopia, Panpako belarra...); atsegin hartzeko (Floridako dordoka, maskotak...); edota zenbait gune birpopulatzeko (Amerikako karramarro gorria, luzioa, siluroa, ganbusia...).

Askotan, ordea, gizakiak nahi gabe lekualdatzen ditu espezieok. Horrela iritsi zen, esate baterako, Hego Afrikatik Mallorkara 1987an geranioaren tximeleta (*Cacyreus mashalli*), haren arrautzak zekartzan landareren batean.

Lekualdatze horiek ez dira gaur goizeko kontuak. Neolito garaian, jada, sortuziren nekazaritzaren eta abeltzantzaren eraginez. Dena dela, gaur egun askoz ere joan-etorri handiagoa dago, jendearen mugikortasuna ere askoz handiagoa delako. Miguel Ibañez irakasle biologoak dioenez, *“100 espezie berritak hamarrek biziraun dezakete, eta bat bihur daiteke inbaditzaile. Orduan, 100 espezie ekartzen badira, % 1eko arriskua dago. Baina 100.000 ekartzen badira... Eta hori da gaur egun gertatzen dena. Ikusi besterik ez dago zenbat landare eta animalia mota dagoen dendetan”*.

Uraren bidez iristen diren espezieak ere miloika dira. *“Urtean 10 bilioi tonelada ur mugitzen dira batetik bestera itsasontzien bidez”* dio Ibañezek. *“Itsasontzi batek Karibeko itsasoan ura hartzen duenean eta Kantauri itsasora etorri eta hustutzen duen bakoitzean, kolonizazio esperimentu bat egiten ari da. Eta uneoro horrelako miloika esperimentu egiten dira. Esperimentu horietatik batek arrakasta edukitzearekin, konturatu gabe aldatze esperimentuak egiten ari gara”*.

Zer egin dezakegu?

Egia da ez dagoela arazo horren kontzientziarik. *“Jendeak ez daki horrelako gauzak gertatzen direnik, eta beraz, oso kontzientzia txikia dago. Gainera, gauza exotikoek erakarri egiten gaituzte, gustatu egiten zaigu etxean edukitzea”* dio Ibañezek. *“Biologoak gara, gainera, askotan joera hori daukagunak. Baina orain arte interes*



naturalekoa zena, orain arrisku latza bihurtzen ari da”.

Kontua ez da egoera dramatizatzea eta beldurtzea, informatzea eta zer egin daitekeen jakitea baizik. Horregatik, Bidebietako ikasleek hainbat aholku ematen dituzte:

- Ez ekarri atzerriko izaki bizidunik (landare zein animalia) bidaiatzen duzunean. Hobeto bizi dira sorlekuan, inolako arazorik sortu gabe.

- Erabili bertako espezieak zerbait apaintzeko landareren bat behar duzunean.

- Ez erosi animalia exotikorik lagun egingo dizun animalia baten behar duzunean. Dagoeneko baldin baduzu, berriz, ongi zaindu.

- Ez utzi kanpoan animalia edo landare exotikorik. Aspertu bazara eta alde batera utzi nahi baduzu, eramazu dende egokiren batera edo jo ezazu animalientzako ospitaleren batera. Edo bestela, eutanasia egin; hozkailuan sartu eta hil egiten dira naturalki, minik gabe.

Espezie inbaditzaileen hedapenari aurre hartu nahi bazaio, instituzioek ere hainbat neurri hartu beharko dituztela argi ikusten du Ibañez irakasleak. Hasteko, inportatzen diren gaiak sakonki ikuskatuz eta araudi zorrotzak jarritz. Zenbait espezie inbaditzailearen batek kutsatuta dagoela susmatzen bada, behar diren neurriak hartu beharko lirateke. Hainbat salgairen salerosketa ere debekatu egin beharko litzateke, nazioarteko itunei men eginez. *“Portugalen 1999an araudi zorrotza ezarri zuten. Besteak beste, sar ezin daitezkeen*

zuhaitz espezieak eta landatu ezin daitezkeen espezieak zerrendatu zituzten, eta animalia eta landareak saltzen dituzten dendei ere hainbat kontrol jarri zitzaizkien. Hemen, ordea, parte naturaletan baino ez dago neurririk” azaltzen digu Ibañezek. *“Sarritan seriotasunik gabe hartzen dira neurriak, baina hemendik urte batzuetara neurri zorrotzagoak hartu beharko dira”*.

**Miguel Ibañez:
“100 espezie berritak hamarrek biziraun dezakete, eta bat bihur daiteke inbaditzaile. Orduan, 100 espezie ekartzen badira, % 1eko arriskua dago. Baina 100.000 ekartzen badira... Eta hori da gaur egun gertatzen dena”**

Zenbait espezie inbaditzaile

Alga hiltzailea (*Caulerpa taxifolia*)

Alga berde ederra da, oso erabilia arrain tropikaleko akuarioak dotoretzeko. 1984an hasi zen ugaltzen Mediterraneoan, ur horri Monakoko akuariorik ekarritakoa nahastu ondoren.

Kalte bikoitza eragiten du: batetik, bizkor hazten denez, poseidonia (fanerogama marina) zelaiak suntsitzen ditu, eta horrela, babesik gabe uzten ditu arrain eta ornogabe asko; bestetik, pozoi indartsu bat sortzen du (caulerpina), eta animalia askoren heriotza eragin (horregatik deitzen zaio "hiltzailea").

Azke urteotan asko hedatu da Mediterraneoan; 1992an antzeman zuten Mallorkan, eta 2000n, berriz, Kalifornian.



Afrikako barraskilo erraldoia (*Achatina fulica*)

Afrikako hego-ekialdean du jatorria, eta 30 cm luze eta 250 gr. inguru izatera iristen da. XIX. mendean azaldu zen Indian, eta XX. mende hasieran Ozeano Bareko zenbait uhartetara iritsi zen.

1966an barraskilo mota horretako hiru eraman zituen haur batek Hawaiitik Miamira, eta haren amonak lorategian utzi zituen. Horrela hasi zen izurriteak arazo ikaragarriak eragin zituen: 10 urtetik gora behar izan ziren suntsitzeko, eta milioi bat dolarreko gastua. Berriki (2003ko azaroan), halere, atzeman dituzte batzuk AEBtako maskota dendetan, debekatuta dagoen arren.

Gaur egun, barraskilo erraldoia izugarrizko kalteak eragiten ari da Brasilgo nekazaritzan. Espezie horrek eragindako hondamendi ekologikorik handiena Frantziar Polinesian gertatu zen. 1967an, ale batzuk eraman zituzten ha-

Japoniako falopia (*Fallopia japonica*)

Hosto iraunkorrak ditu Asiako landare honek, eta arrak eta emeak daude. Ugalketa asexuala du, oso erraza eta azkarra.

XIX. mendean ekarri zuten Europara, apaingarri gisa, eta berehala zabaldu zen hezeguneetan, batez ere Ingalaterran, non gaur egun debekaturik dagoen. Azken urteotan Gipuzkoako eremu asko kolonizatu ditu, ibai bazterrak, batez ere. Hori gutxi balitz, landare horrek kutsaturiko lurra ekarri zuten Bidebietara orain gutxi, eta oso azkar ari da hazten zenbait lekutan.

Bitxikeria gisa, zera esan daiteke: Falopia dela munduko landarerik emankor eta astunena (ehunka milatonaiko pisua), kontuan hartzen badugu Europa inbaditu duten landare guztiak emeak direla, eta sorburu berekoak -klonak, nolabait esateko-



ra sukaldaritzan erabiltzeko, baina neurritz gain ugaltu zen, eta Ameriketako barraskilo harrapari bat (*Euglandina rosea*) baliatu behar izan zuten hari aurre egiteko. Barraskilo harrapari hark erdira gutxitu zuen Afrikako barraskiloaren kopurua, baina horiek ez ezik, uharteko barraskilo propioak ere kaltetu zituen (espezieen erdia desagerrarazi zuen). Bistan dago, kasu hartan, okerragoa izan zela konponbidea gaitza bera baino.

Karramarro gorria (*Procambarus clarkii*)

Ibaiko karramarro gorriak Mississippiko (AEB) ur gezetako urtegitan du jatorria. 1973an Badajozera ekarri zuten, ezkutuan; hurrengo urtean 500 kg. eraman zituzten Sevillako etxalderara.

Karramarro horiek ingurune bertetara iritsi eta han hedatzeko bi modu na-

Floridako dortoka (*Trachemys scripta elegans*)

Galapago hau AEBren hegoaldean bizi da, klima bero eta epeleko lurralde zingiratsuetan.

Oso erraz hazten denez gizakiaren babespean, erruz hasi dira saltzen azken urteotan maskota dendetan (1987an milioitik gora inportatu ziren).

Haragijale eta sarraskijalea da, eta 30 cm luze izatera iritsiten da. Ohikoa da, gainera, hazi hala uztea errekatxo edo aintziraren batera botaz, horrek bertako galapagoei (galapago arrunta eta legenduna) egin dakiekeen kalteaz jabetu gabe.

Gaur egun Ebroko ekosistemari egin diezaiokeen kaltea ikusita, ekimen zenbait abiarazi dira ibai horretatik uxatzeko.



gusi dituzte: batzuetan ihes egiten dute eta beste leku batzuetan finkatzen dira; beste batzuetan, berriz, gizakiak berak ahalbidetzen du hedapena, arrantzaleek zenbait gune birpolulatzeko baliatzen baitituzte.

Horrela, Iberiar Penintsulako ibai guztietara iritsi da oso denbora gutxian.

Karramarro exotiko horrek onddo parasito bat darama, eta bertako karramarroen (*Austropotamobius pallipes*) heriotza eragiten du; horixe gertatu zen, hain zuzen ere, duela urte batzuk zabaldutako izurritearen ondorioz.

Ikusten denez, XIX. mende bukaeran europar espezieko mahastiei gertaturikoa gerta dakioke orain karramarroari: garai hartan, Ameriketatik ekarritako mahatsak zekarren onddoak europar espezieko mahatsaren desagerpene ekarri zuen, "mildiu" izeneko gaitzak jota; orain, berriz, hango karramarro gorria da arazo iturri, bertakoen suntsipena eragin baitezake. •

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Marokoko hezkuntza sistema

Artikulu honetan, laburkiro bada ere, Marokoko hezkuntza sistema eta eskolako hizkuntza den arabiera klasikoari buruzko zenbait datu interesgarri luzatu-ko dira, besteak beste, haur nahiz gazte marokarrei euskara irakasteko orduan kontuan izan ditzagun.

Marokoar hezkuntza sistema, Mohamed VI. erregearen bultzadari esker, gaur egun erreforma prozesu baten barruan dago. Erreforma *Charte* proiektuan finkatuta geratu zen (1999ko azaroko Hezkuntza eta Formakuntza Gutun Nazionalako proiektua), ondorengo egutegiarekin: 2000-2010 bitartean Hezkuntza eta Formazio Hamarkada Nazionala; 2002an Derrigorrezko Hezkuntza orokortu; 2003an 6 urterekin haurren eskolatzeari hasiera eman orokortu; 2004an Batxilergoa orokortu; 2006an Haur Hezkuntza orokortu; 2010an Unibertsitatea orokortu. Horiek hitzartutako datak bada ere, 6 urte dituzten haur guztiak eskolatzeari hasiera eman orokortzea atzeratu egin dira jada.

Erreforma horren bidez, batez ere, honako helburu hauek lortu nahi dira: Marokoko analfabetismo altua jaitsi, hezkuntza kalitatea igo, hezkuntzari dagokionez hiri eta landa eremuen artean nahiz gizon eta emakumezkoen artean dauden aldeak murriztu eta,



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

hezkuntza pribatua garatu. Datuen arabera, lurralde honetako biztanleriaren %55 analfabetoa da. Datuak are kezka-garriagoak dira gizonezko eta emakumezkoen eskolatzeari hasiera eman orokortu. 2000. urtean UNESCOk bildu zituen datuen arabera, landa eremuko emakumezkoen %89 eta gizonezkoen %61 analfabetoa da, eta hiri guneetan emakumezkoen %49 eta gizonezkoen %25. Analfabetismo altu horien arrazoietakoa bat landa eremuetako eskola kopuru urria da. Eredu horietan haurrek eskolara joateko hainbat eta hainbat kilometro oinez egin behar izaten dute sarri askotan; hori dela eta, ohikoa da eskolara joan beharrean haurrak gurasoei laguntzen geratzea, etxerako eskulanaren edota diru sarreren beharra

bide.

Marokoar hezkuntza sistema *islamiar legearen* gainean eraikita dago. Jaungoikoarenganako fedea, nazioarenganako maitasuna eta monarkia konstituzionalaren errespetua ditu oinarritzat.

Marokon bi hezkuntza sistema daude: publikoa eta pribatua. Pribatuan ikasleriaren %3 dabil, eta ikastetxe horietako gehienak gobernuaren menpe daude, eta publikoen antzeko ikasketak programak eta metodoak erabiltzen dituzte. Horiez gain, eskola frantsesak, espainolak eta abar ere badaude. Horiek, dagozkien lurraldeko programa jarraitzen badute ere, nahitaez arabiar hizkuntza eta kultura ikasgaiak eman behar dituzte.

Ikasketak ez unibertsitarioak hiru mailatan bereizten dira: Lehen Hezkuntza (6 maila, 6-12 urte bitartean), Bigarren Hezkuntza (3 maila, 12-15 urte bitartean), eta Batxilergoa (3 maila, 15-18 urte bitartean). Batxilergoaren ordez Lanbide Heziketa ikasteko aukera ere badago. Haur Hezkuntzari dagokionez, orain arte ez du presentzia handirik izan; hirietan orain hasi dira zabalitzen.

Haur Hezkuntza: arlo pribatuaren esku dago, eta 2-6 urte bitarteko haurrei begira. Zentro bakoitzeko buruek erabakitzen dituzte emango duten ikasketak programa eta irakasleek izan beharreko profila eta ikasketak. Garai hone-



tan hasiko dira hizkiak ezagutzen, irakurtzen eta idazketa teknikak lantzen. Zentroek ez dute jangelarik; hala bada, ikastetxeko ordutegia, goizeko 8:30etik 12:00etara eta 14:00etatik 17:30era da. Asteazken, larunbat eta igandeetan ez dago eskolarik.

Eskola koranikoak: Korana baino ez da irakasten eta kasu gutxi batzuetan irakurketarekin eta idazketarekin hasten dira. 4 urterekin matrikulatu eta 7-8 urte dituztenerako Korana buruz jakitea espero da. Erabiltzen duten ikasketen metodologia errepikapenaren bitartez buruz ikastea da, azaldu edota jakin gabe zer esaten den edota esaten denaren inguruan hausnartu barik. Pertsona helduak ere joan daitezke ikastetxe horietara, eta kasu horietan ere ikasketa metodologia bera erabiltzen da. Tangerren, esaterako, hiru eskola koraniko garrantzitsu daude. Bertan urtero 10 ikasle hoberenei beka bat ematen zaie ikasketak jarraitzea Saudi Arabiara joateko eta etorkizun hurbilean iman bihurtzeko.

Lehen Hezkuntza: sei maila dira, 6 urterekin hasi eta 12 urtera arte. Maila batetik bestera automatikoki pasatzen da, ikasgaiak gainditu edo ez. Hala ere, Bigarren Hezkuntzara pasatzeko, haur guztiak azterketa global bat gainditu behar dute ekainean. Gainditzen ez dutenek hurrengo urtera arte itxaron behar dute. Herri edota hiri bakoitzeko haur guztiak azterketa bera izaten da, eta azterketa horren mamia herri edo hiriko irakasle guztien artean erabakitzen da. Zentro bakoitzak bere proposamena egiten dio barrutiko ikuskariari eta horrek Barrutiko Ordez-

karitzara bidali ostean, han erabakitzen da zein galdera egin zehazki. Azterketa hori haurren gehiengoak gainditzen badu ere, gainditzen ez dutenek hiru urteko epea dute horretarako. Orduan ere gainditzen ez badute, Lanbide Heziketara bideratzen dira.

Badaude beste zentro mota batzuk ere, esate baterako "Muley Sliman" Tangerren, non bi urteren buruan oinarizko jakintzagaiak eta islamaren inguruko gaiak baino ez diren eskaintzen. Lehen Hezkuntzako asteko ordutegia 30 ordukoa da, astelehenetik larunbatera. Liburuak gurasoek erosi behar izaten dituzte, baina ostean gobernuak diru laguntzak ematen ditu.

Bigarren hizkuntza salbu, ikasgai guztiak arabiera klasikoan ematen dira. Lehen Hezkuntzako 3. mailan frantsez idazten, irakurtzen eta hitz egiten ikasten hasten dira, Marokoko bigarren hizkuntza ofiziala baita.

Gela bakoitzeko haur kopurua aldatu egiten da auzotik auzora eta herrietik herrira, baina hirietan ohikoa da gela berean 40 ikasletik gora izatea.

Bigarren Hezkuntza: hiru maila dira, 12 urtetik 15 urtera bitartean. Lehen Hezkuntzan legez, hemen ere, maila batetik bestera automatikoki igarotzen da, eta Batxilergoan matrikulatzeko azterketa bat gainditu behar dute. Azterketa horretara aurkezteko 18 urte edo gutxiago izan behar dira. Hori ez bada kasua, edota hiru aldiz azterketa frogan egin eta gainditzen ez badute, Lanbide Heziketara bideratzen da ikaslea.

Bigarren Hezkuntzan ere astean 30 orduko ikas-ordutegia dute, astelehenetik larunbatera; liburuak beraiek erosi behar dituzte (nahiz eta gobernuak ostean diru laguntzak eman). Ikasgela bakoitzean 20-45 ikasle inguru egon daitezke. Ikasgai guztiak –bigarren hizkuntza salbu– arabiera klasikoan ematen dira. Hala ere, kasu honetan, ikas-materialak ordaintzeko bekak lortzeko aukera dago, eta landa eremuko ikasleek kasuan, hirietako barnetegietara ikastera joateko.

Batxilergoa: hiru maila dira, 15-18 urte bitartean egiten direnak. Lehenen-

go mailan, frantsesaz gain, beste hizkuntza berri bat ikasten hasten dira: gaztelania, ingelesa, alemana edo italiarra. Bi adar daude:

1. Orokorra: Letrak, Zientzia Esperimentalak eta Zientzia Zehatzak.

2. Teknikoa: Ingeniaritza Ekonomikoa, Mekanika, Elektronika, Kimika eta Nekazaritza.

Kasu honetan ere, Unibertsitatara joateko azterketa bat gainditu behar da.

Zenbait ohar: Marokon ez da existitzen irakasle tutorearen lana, eta ikasle ordezkariek ez dute eginkizun zehatzik edota pisurik. Ziklo bakoitzaren bukaeran, haur bakoitzarekin orientatzaile batek hitz egiten du bere ikasketak nondik bideratu aholkatzeko. Ebaluazio txostenetan (ikasturteko bi edo hiru), azken azterketako nota baino ez da agertzen, hori baita ebaluatuko duten gauza bakarra. Irakasle eta ikasleentzako artean ez dago apenas komunikaziorik, irakasleak, oro har, eskola ematera mugatzen baitira. Gurasoak ere oso gutxitan joaten dira zentrori, eta agertzen direnean, normalean, ikasleak gauza gogorren bat egin duelako da. Hezkuntza sistemari ez zaio garrantzirik ematen eta irakasleentzako ez da aintzat hartzen. Ez dago talde lanak egiteko ohiturarik, ez eta irakasleentzako koordinaziorik ere. Bai irakasleek, bai ikasleek oso baliabide material gutxi dituzte. Ikasketa metodologia zabalduena memorizazioa da.

Gogoan izan, beraz!

1. Marokon analfabetismo tasa altua dago, bereziki landa eremuan eta emakumezkoen artean.

2. Arabiera klasikoan irakasten dira ikasgai guztiak. Administrazioa hizkuntza da, ez kalekoa.

3. Haur Hezkuntza oso haur gutxiak egiten dute; beraz, 6-7 urte arte eskolatu gabe daude gehienak.

4. Eskola koranikora joan diren haurrek erlijioa dute beraien hezkuntzan oinarri. Memorizazioa da ordura arte izan duten ikas sistema bakarra.

5. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan

eta Batxilergoan mailak automatikoki -ikasgaiak gainditu edo ez-pasatzen dira, horrek dituen ondorioekin. Ziklo bakoitzaren bukaeran hurrengo ziklora pasatzeko azterketa global bat egiten da. Guretzat interesgarria litzateke jakitea ziklo bakoitzaren bukaeran egiten den azterketa horietan zein gai eskatzen dituzten. Horrela, ziklo bakoitzaren bukaeran zein maila izan beharko luketen jakingo genuke eta horren aurrean neurriak hartu ahal izango genituzke.

6. Lehen Hezkuntzako 3. mailan frantsesa eta Batxilergoko 1. mailan gaztelania, ingelesa, alemana edota italiara ikasten hasiko dira.

7. Memorizazioa da ikas sistema zabalduena.

8. Talde lanak egiteko ohiturarik ez dago.

9. Irakasleen eta ikasleen artean apenas dago harremanik.

10. Gurasoek ikastetxetik pasatzeko ohiturarik ez dute.

11. Ez da hezkuntzan sinesten.

Euskararen eta arabiera klasikoaren arteko desberdintasun nabarrienak

Ezer baino lehen, gogoan izan behar dugu, gure ikastetxera datozen haur marokoez nahiz haien gurasoek ez dutela zertan arabiera klasikoa jakin, ikastetxeko eta administrazioko hizkuntza baino ez baita. Marokon hainbat hizkuntza daude, batzuk arabieraren dialektotzat hartzen direnak (Dariya, Djebli, Arubi, Bedui, Hassani...), eta beste batzuk Tamazight hizkuntza edota honen dialektotzat (Tarifit, Tamazight, Tachelhit...). Hala ere, denak alfabetatzen dira arabiera klasikoan, eta arrazoi hori bidez dut hizkuntza horren eta euskararen arteko zenbait desberdintasun aipatzera.

Bestalde, argi gera bedi konparaketa hau konparaketa umil bat dela eta praktikotasunari begira egina baino ez dagoela. Hau da, gogoan izan beharrekoren baita datu interesgarri baino ez dira emango, zehaztasunek luze joko baidukete eta azterketa sakona eskatuko baidukete. •

Zailtasun ohikoenak

1. Lateralitatea eta norabidea.
2. Grafismoa.
3. Bokalen bereizketa eta ahoskatzea.

4. Gaztelaniako /p/, /ñ/, /ll/, /x/, /c/, /z/, /qu/ kontsonanteen ahoskatzea eta bereizketa.

5. Maiuskulen eta minuskulen erabilera.

6. Fonemen beraien arteko lotura eta idazkera.

7. Letren idazkera eta hitzen arteko banaketa.

8. Puntuazio zeinuak

9. Izenen generoa eta zenbakia

10. Aditzak

11. IZAN aditza

12. Aditzen orainaldia eta iragana

Zer dela eta

1. Arabieraz eskuinetik ezkerredera idazten da.

2. Latindar grafiatik oso desberdina. Grafia bakoitza soinu desberdin bati dago-
kio.

3. Fonologikoki o/u eta e/i-ren artean ez dago oposaketarik. Hau da, hitz bera /o/ edota /u/-rekin esan, esanahia ez zaio aldatuko, eta /e//i/ren artean, beste horrenbeste. Hala, poto, putú, putó edo potu esan, beti esan nahi izango du gauza bera: "zutoina". Hala bada, arabierako sistema bokalkoa sei bokaletara mugatzen da (A, I, U): hiru laburrak eta hiru luzeak.

4. /p/, /ñ/, /ll/, /x/ ez dira existitzen, eta beste hiruen kasuan, bakoitzak soinu zehatz bati egiten dio erreferentzia. Arabierak 28 soinu ditu, 28 karaktereri dagozkienak. Normalean [b] eta [g] zein [p] eta [k] soinuak ez dituzte bereizten, eta fonema sabaikiak egiteko arazoak dituzte.

5. Arabieran ez da maiuskularik existitzen.

6. Arabieraz kurtsiban idazten da eta ez du forma bakarturik latindar alfabetoko in-
prenta letrak bezala.

7. Letra bera, hitzean posizio batean edo bestean joan, desberdin idazten da. Lau forma desberdin daude letra bera idazteko, bere posizioaren arabera. Hitzak ere, bukatzen diren letraren arabera, elkarren artean lotzen dira.

8. Puntuazio zeinuei ez zaie garrantziarik ematen. Galdera eta harridura ikurrak esaldi bukaeran baino ez dira jartzen.

9. Gaztelanian bezala, izenek generoa eta zenbakia dute. Maskulinoa genero ez markatua da, eta femeninoa hitzari "-ta" atzizkia gehituz osatzen da. Arabieran hiru zenbaki daude: singularra, plurala eta "duala" (bi gauza). Forma dualak eta pluralak ere atzizki bidez adierazten dira. Izenak deklinatu egiten dira euskararen bezala, baina arabieran hiru kasu baino ez daude: nominatiboa (subjektua markatzeko), genitiboa (zehir objektua adierazteko) eta akusatiboa (objektu zuzenarentzat).

10. Bigarren eta hirugarren pertsona singularrak eta pluralak, forma femeninoa eta maskulinoa daukate. Aditz bakoitzak baditu forma dualak ere.

11. Arabieran ez da existitzen, nahiz eta suposatuta egiten den. Adibidez, "irakaslea naiz" esateko, "ni irakaslea" esango litzateke.

12. Aditzen denbora sistema lehenaldira eta etorkizuneko formetara mugatzen da. Orainaldia etorkizuneko formekin adierazten da.

Hitzaldiak

BAT SOZIOLINGUISTIKA aldizkariaren 52. zenbakia (2004ko irailekoa) Euskara eta etorkinak gaiari buruzkoa da. Honako artikulua dugu:



- "Estatuz kanpoko etorkinak eta hizkuntza normalizazioa EAEn: administrazio publikoaren eta herri mugimenduen ahaleginak". Itziar Aramaio
- "Akulturazio estrategiak: Espainiatik etorritako etorkinen estrategiak harrera gizartera egokitzeko hainbat autonomi elebidunetan". Iñaki Garcia eta Nekane Arratibel
- "Etorkinak gure eskoletan. Gogotarako zenbait zertzelada". Matilde Sainz
- "Etorkinen integrazioa ikastoletan". Mariaje Imaz eta Meltxor Artetxe

- "Etorkinak eta hizkuntzak eskolan". Felix Etxeberria
- "Europar eta munduan aniztasuna: etorkizuna = etorkintasuna?!" Julen Arexolaleiba
- "Etorkinak euskal hezkuntzan: sindikatu baten ikuspegia". Iñaki Agirre (LAB)
- "Euskara eta immigrazioa". Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria)
- "Eskola, hizkuntza eta immigrazioa Katalunian". Josep M. Serra

Irakurleen txokoa

** Ondarroako Txomin Agirre ikastetxeak gara. Gure zentroan adin guztietako hainbat etorkin daude. Urteak pasa ahala, konturatu gara arabiar hizkuntzan alfabetatutako haur gehienek hasieratik logopedia saio egoki bat ez badute jasotzen, urteak aurrerajoa arren, idatzizkoan ez dutela ongi menperatzen arabiar alfabetoan existitzen ez diren fonemak eta euskaraz existitzen direnak bereiztea. Esaterako /r/ eta /rr/, /i/ eta /e/, /o/ eta /u/... Hori dela eta, Murtzian (arabiarretik gaztelaniarako jauzi fonetikoaren hasieratik menperatzeko) edota Katalunian (arabiarretik katalanerako jauzi fonetikoaren menperatzeko) jada egina duten legez, guk ere euskarari begirako material logopediko umil bat sortzea erabaki dugu. Oraindik hasi berriak baino ez gara. Hori dela eta, norbait kontu honetan interesatuta balego, zerbait egina balu, elkarlanean aritu nahiko balu edota adituen batek bere aholkuak nahiz laguntza eman ahalko baligu, biziki eskertuko genuke.*

idazkaritza@txominagirre.org

** Bilbo Handiko A ereduko ikastetxe batean lan egiten dut. Gure ikastetxea ikasle etorkinez josia dago eta Eusko Jaurlaritzatik diru laguntzak jasotzen baditugu ere, laguntza horien koordinazio falta izugarria dagoela iruditzen zait. Esate baterako, maiztzean Hezkuntza Saileko i ikastetxean ditugun etorkinen eta horien gabezi akademikoen (bereziki linguistikoen) zerrenda eta balorazioa bidali behar izan genien diru laguntzok lortzeko. Baina, zer gertatzen da urtarrilean datozenekin? Eta gainera, gure zentroan, behintzat, etorkin askoren arazoa ez da mugatzen linguistikora; kasu batzuetan haur horiek gorreria puntu bat dute, ikusmen arazoak... Beraz, ikasturtean zehar datozen haur horiekin zer? Ikasturte barruan badatoz, ez dugu laguntza handirik, hori "pasa la bola" edota "sálvese quien pueda" bihurtzen da. Nik uste dut, laguntza horiek eskatu eta lortzeko, ikasturtean zehar ere beste deialdi bat egon beharko lukeela. Bestela, askotan, bat-batean etorkinak etorri, eta aurretik emaniko laguntzak ezer gutxian gertatzen dira.*

M.G.

Txoko hau zeurea duzu, irakurle.

Egin galderak edo bidali erantzunak helbide hauetara:
itziaramayo@msn.com edo **aldizkaria@hikhasi.com**

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Harremanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkak denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak

azarroa

Hezkuntza sistemetako legeak aldatze bidean dira

Gizartea aldatzen doan heinean hezkuntza sistemak ere aldatzeko beharra izaten du. Horregatik, Europan hezkuntza sistemek 2010. urterako lortu behar dituzten helburuak zehaztu ziren. Hein batean horri begira, Frantziako eta Espainiako gobernuak hezkuntza sisteman hainbat aldaketa egitekotan dira. Horregatik bultzatu dituzte eztabaidak eta foroak hezkuntzako eragileen artean. Katalunian ere aditu talde batek hainbat proposamen egin ditu.

Frantziako aldaketak

Frantzian iazko ikasturtean hausnarketaren prozesu bat eraman zuten aurrera, eta berriki ezagutu da hezkuntza sistemaren erreformak biltzen dituen Thelot txostena. Azaroaren erdialderako prest izango da lehen zirriborroa eta abenduan edo urtarrilean aurkeztuko da Ministroen Kontseiluan lege egitasmoa. Otsail edo martxoan aurkeztuko dute Parlamentuan eta 2005eko lehen seihilalabetekoan eztabaidatuko da bertan. Behin lege bihurtuta, 2006/07 ikasturtean jarriko da martxan.

Proposatzen diren aldaketak Oinarrizko hezkuntza indartzea

- Derrigorreko gaitasun oinarria: atal honetan zerrendatzen diren gaitasunak menperatu egin beharko dira hurrengo ziklora sartzeko: kontatzea, mintzatzea, irakurtzea, idaztea eta bizikidetzeta.

- Brebeta: kolegiotik lizeora pasatzeko Brebeta deritzon azterketa egin beharko da, eta gaindituz gero Oinarrizko Ikasketen Agiria eskuratuko da.

- Norbanakoen gaitasuna: ikasleen gaitasunak, gustuak eta dohainak gartzeko aukera zabalduko da. Hautazko gai osagarriak jarriko dira.

- Norbanakoaren txostena osatzea: ikasleari hautabidearen aukera emango dion sistema ezarri nahi da. Horretarako, ikaslearen nahia eta tokian tokiko eskaintzak kontuan hartuko dira.

Ikasmaien aldaketa

- Urte bat goizago hasi: orain arte derrigorrezko eskolatzea 6 urterekin hasten zen, eta txostenak 5 urterekin hastea proposatzen du. Xedea da ama eskolatik lehen mailarako haustura leuntzea.

- Mailak aldatu: derrigorrezko hezkuntza hiru ataletan banatzea proposatzen da:

+ Oinarrizko ikasketa: ama eskolako azken urtetik CE1 mailaraino.

+ Sakontze fasea: CE2tik 6. mailara.

+ Zabaltze fasea: 5. etik 3. mailara.

Irakasleen formazioa

- Irakasleen eginkizuna: ohiko lana bermatzeaz gain, irakasleak ikasleen jarraipena, gurasoekiko harremana eta talde lana bermatu beharko du.

- Ordu kopurua igotzea: antolaketa berriak irakasleen presentzia handiagoa eskatzen du kolegioan eta lizeoan. Irakasle bakoitzak lau zepabost ordu gehiago sartu beharko lituzte, eta soldatan kontuan hartzea eskatzen du txostenak.

- Ikasbidea luzatzea: eginkizun berriei aurre egiteko, formazio epea luzatzea proposatzen da. Hurrengo urteetan irakasleriaren erdia berritzea aurreikusuten da eta horiek sartzeko sistema aldatu egingo litzateke. Bi ataletan egingo litzateke. Lehenengoan irakaslearen jakintza hartuko litzateke kontuan, eta bigarrenengan, formazio berezia jaso ondoren, lanerako behar dituen gaitasunak hartuko lirateke kontuan.

Lanbide formazioa

- Eskaintza eskola sisteman barnertzea: kolegiotik bermatu nahi dute lanbideen ezagutza, eta enpresa munduarekiko erlazioa indartu.

- Alternantzia: IUFM formazioak aldaketa sakonak izanen ditu. Bi urtekoa izango da eta teoria eta praktikaren alternantzia oinarritua.



Informazio gehiagorako:

www.education.fr

www.debateeducativo.mec.es

www.fbofill.org

- BONAL, Xavier; FERRER, Ferran; ESSOMBA, Miquel Angel: *Política educativa i igualtat d'oportunitats. Prioritats i propostes*. Jaume Bofill, Bartzelona, 2004.

Espainiako gobernuaren eztabaida prozesua

PSOEk, gobernura iritsi bezain laster, PPK ezarritako Kalitate Legea albo batera utzi eta lege berri bat egiteko asmoa agertu du, helburua 2010erako Europan jarri diren hezkuntza helburuak lortzea delarik. Horretarako, "Una educación de calidad para todos y entre todos" izeneko txostena egin du eta hezkuntza eragileengana zabaldu du eztabaida dezaten. Autonomia Erkidego bakoitzeko Hezkuntza Sailak hartu du ardura hori eta abendua bitartean eztabaidatuko da. Otsailean eztabaidaren ondorioak aurkeztuko dira. Irailean egingo da eztabaida parlamentarioa eta legearen onarpena. 2005/06 ikasturtean zehar hezkuntza administrazioek arauak garatuko dituzte, eta 2006/07 ikasturtean jarriko da legea indarrean.

Egiten diren proposamenak Arlo teorikoan

- LOGSEren ildotik doa. Hezkuntza ikuspegiari ematen dio garrantzia. Ikastetxeen autonomia, ikasleen beharretara egokitutako heziketa, eskola komunitatearen parte-hartzea, udalen inplikazioa... aipatzen ditu.

- Europan baino gutxiago gastatzen da hezkuntzan eta portzentaje-gastua (BPG) Europako herrialdeen parera igo nahi da.

- Eskola Ituna proposatu nahi da puntu hauen inguruan:

+ Hezkuntzaren kalitaterako helburuak

+ Irakasleen lana

+ Hezkuntza zentroen funtzionamendua

+ Ezagutzaren gizartearen erronka

Haur Hezkuntza

- Bi ziklotan antolatuko da: 0-3 eta 3-6 urte.

- Hezkuntza helburua duten zikloak izango dira.

- Irakurketa-idazketan, atzerriko hizkuntzan eta informatikan lehen urratsak ematen hastea da xedea.

Lehen Hezkuntza

- 4. mailan ikastetxe bakoitzak diagnostikoaren ebaluazioko proposamena.

- Ikasleen ikasketa maila eta ikastetxearen funtzionamendua ebaluatzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

- Lehen zikloan ikasgaiak murriztea (Lehen Hezkuntzan baino bi edo hiru ikasgai gehiago soilik).

- Irakasleen taldeak sustatzea. Irakasleen taldeak erabakitzea ikasleak hurrengo mailara pasa edo ez.

Batxilergoa

- 4 modalitatetik 3ra pasatzen da: Artea, Giza Zientziak eta Humanitateak eta Zientzia eta Teknologia.

- Derrigorrezko ikasgai kopurua murriztea.

- Ikasgai guztiak gaindituta, "batxiler" titulua jasotzea.

Unibertsitatea

- Unibertsitatean sartzeko azterketa bakarra egitea.

Balioak

- Herritarren heziketarako ikasgaia sartzea.

Erlijioa

- Erljioaren ikasketa ez konfesionala sartzea.

Ikastetxeen autonomia

- Antolaketan eta hainbat hezkuntza proiektuetarako zerbait proposatzen da, baina betiko beldurrak ageri dira.

Aukeratzeko eskubidea eta pluraltasuna

- Konpentsazio proposamenak agertzen dira, gehiegi zehaztu gabe.

Irakasleen prestakuntza

- Ez du gehiegi zehazten edo lotzen.

Ondorioz:

- LOGSEren espiritua edota hezkuntza ikuspegia berreskuratzen du.

- Hezkuntza asmoari ez dizkio behar adinako baliabideak jartzen. Diru gehiagoz hitz egiten du, baina goitik beherako egituraketa ez du zalantzan jartzen. Autonomiaz hitz egiten du, baina berau garatzeko inongo neuririk hartu gabe (guztiz kontrolatua).

- Gaztelania ez diren estatuko beste hizkuntzak ez dira ia existitzen.

- Bukatzeko, aurrekoa baino intentzio hobea duen proposamena da, akats beretsuak dituen eta gure hezkuntzarekin alderatuz, oso atzetik doana.

Kataluniako hausnarketak

Ideologia eta eremu pedagogiko anitzeko 40 adituk zentro publikoen eta kontzertatuen inguruko hausnarketa eraman dute aurrera. 300 proposamen adostu dituzte eta *Politica educativa i igualtat d' oportunitats* liburuan bildu dituzte.

Era berean, Generalitat-eko Hezkuntza Kontseilua elkarrizketak egiten hasiko da hezkuntza erakunde eta eragileekin Hezkuntza Itun Nazionala egite aldera. Aipatu liburua oinarritzat hartuko dute hezkuntza politikari buruzko hausnarketak egiteko.

Liburuak gaur egungo hezkuntza kontzertuen gaineko errepasoa egiten du. Egun, sare publikoan dauden eta zerbitzu publikoko helburuak betetzeko konpromisoa hartzen duten zentroek jasotzen dute finantziazio publikoa.

Hona hemen egiten dituzten zenbait proposamen:

- Sare publikoaren eta pribatuaren artean itun handi bat egitea sistema justua eta berdintzaileagoa lortzeko.

- Ondorioz, titularitate publikoko sarea sortzea. Bertan zerbitzu publikorako bokazio argia duten Kataluniako zentro guztiak egongo lirarteke.

- Eskola Mapa berria proposatzen dute, egungoak desorekak eta desberdintasunak sortzen dituelako. Eskola Mapa berriak sozialki baztertuta gelditzeko arriskuan dauden zonaldeak hartu beharko lituzke kontuan, eta ez zentroak.

- Kontzertu politikak eta irakasleen betekizunen parekatzea behar dira sare biak baldintza beretan egoteko. Horregatik, kontzertuak plazaren kostu osoa bete behar du.

- Kontzertuaren kriterioek kontuan hartu beharko lituzkete: zentroaren ideiak, irabazi asmorik ez izatea, ikasleak kriterio gardenekin onartzea, hezkidetzatza, hezkuntza komunitateak parte hartzeko mekanismoak, sare publikoaren ordutegi bera izatea eta aukera berdintasunarekin lotutako alderdi guztiak.

- Eragile sozialek gehiago parte hartzea hezkuntza politiketan. Horretarako, Heziketako Herri Forum-ak sortzea proposatzen dute, nahi duen orok esku har dezan.

Eskolak euskaldundu tuko dute hezkuntzako eta

Hezkuntzako eta euskalgintzako hainbat eragilek **Eskolak euskaldundu behar du** kanpaina jarri dute abian, eta horretara bultzatu dituen arrazoia garbia bezain argia da: gaur egungo hezkuntza sistemak ez du bermatzen ikasleek euskara ikatea. Eta horregatik, eskolak euskaldundu egin behar duela aldarrikatu dute.

AEK, EHU, Euskal Herriak Bere Eskola, Euskal Konfederazioa, Ikasle Abertzaleak, Kontseilua, LAB, Sortzen-Ikasbatuaz, EHIGE eta Partaide dira kanpaina honi hasiera eman diotenak. Horren bitartez, gaur egungo hizkuntza politikak agortuta daudela aldarrikatu dute, eta beraz, hizkuntza politika berriak jarri behar direla martxan. Horretarako, sasibideei aurre hartu eta benetako bideak hartzea eskatu dute.

Bilbon egindako aurkezpenean Aztikerren datuak eman zituzten ezagutzera. Horien arabera, gaur egun hiru ikasletik bi euskaldundu gabe ateratzen dira eskolatik. Euskal Herriko ikasleen % 20,7k eskola guztiak gaztelaniaz edo frantsesez jasotzen ditu; % 24,6k

Euskara ikasgaia astean lau orduz jasotzen du, eta gainerakoa gaztelaniaz edo frantsesez; % 16,7k ikasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz ikasten ditu; eta % 38k dena euskaraz ikasten du, Gaztelania eta Frantsesa ikasgaiak izan ezik astean lau orduz. Datu horiek kontuan hartuta, beraz, **gehienez ikasleen % 38 euskaldunduko da, eta % 62 ez da euskaldunduko.**

Egoerak bere horretan jarraitzen badu, hurrengo 18 urtetan euskaldundu gabeko 268.354 euskal ikasle amaituko dute Derrigorrezko Hezkuntza; alegia, urtero 14.908 ikasle.

Horri gehitu behar zaio euskara ikasteko eskubidea ukatu egiten dela zenbait eskualdetan. Beraz, eskolak ez badu euskalduntzen, hizkuntza eskubideak sistematikoki urratu egiten dira.

Eskolaren euskaldunaren ezaugarriak

Horri aurre egiteko eman behar diren urratsak azpimarratu dituzte kanpaina honen bultzatzaileek. Euskara eskubidea bada eta helburua euskal-

Datuak

89.666 euskal ikasleek eskola guztiak gaztelaniaz edo frantsesez jasotzen ditu, euskarazko irakasgairik gabe (ikasleen % 20,7).

106.269 euskal ikasleek eskola guztiak gaztelaniaz edo frantsesez jasotzeaz gain, Euskara irakasgaia ematen du astean lau orduz (ikasleen % 24,6).

72.419 euskal ikasleek hainbat eskola erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu (ikasleen % 16,7).

164.375 euskal ikasleek eskola guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta Gaztelania eta Frantsesa irakasgaia ematen du astean lau orduz (ikasleen % 38).

Gehienez, **ikasleria osoaren % 38 euskaldunduko da. Ikasleria osoaren % 62 ez da euskaldunduko.**

Hurrengo 18 urteetan euskaldundu gabeko **268.354** euskal ikasle amaituko dituzten beren ikasketak; hau da, urtean **14.908** ikasle.

1991/02-1996/97 tartean % 52,2 egin zuen gora Dereduak.

1997/98-2002/03 tartean, % 24.



behar du! aldarria lau haizetara hedaeuskalgintzako hainbat erakundek

duntzea bada, horretarako tresna eskola euskalduna da, eta honako ezaugarriak eduki beharko lituzke nagusiki:

- **Irakaskuntza-ikaskuntza euskara** denez, hizkuntzarekiko ardurak irakasgai guztietan eduki behar da.

- **Harreman hizkuntzak euskara izan behar du.** Horretarako, irakasle eta langile guztiek izan behar dute euskaldun (hots, elebidun). Kolektibo guztien arteko harremanak euskaraz gartzeko bitartekoak jarri behar dira, bai eskola barruan eta bai eskolaz kanpo ekintzetan.

- **Hizkuntza gaitasun bakoitzak bere arreta berezia eskatzen du.** Jatorriz erdaldunak direnei begira, arreta berezia ezarri behar zaie txiki-txikitatik euskararen jabeakuntza arrakastatsua izan dezaten. Jatorriz erdaldunak izateaz gain, euskal ikastetxe batean berandu eskolatzen direnen kasuan, neurri eta baliabide bereziak jarri beharko dira, lehen urteetako urratsak ez baitituzte



eman. Jatorriz euskaldunak direnei begira, irakasleen euskararen kalitatea bermatzea oso garrantzitsua da, hurren hizkuntza gaitasunaren garapena blokea edo atzera ez dadin.

- **Irakasleriak euskalduna eta prestatua** izan behar du. Horrek eskatzen du prestakuntzari eta etengabeko hobekuntzari arreta berezia eskaintzea. Bestalde, oraindik ere irakasle elebakarrak sortzen direla ikusita, Euskal Herrian kokatuta dauden Irakasle Eskoletan erdal adarrak desagertzea beharrezkoa da.

- **Hizkuntza normalkuntza plangintzak** egiterakoan, ikastetxe bakoitzak bere egoera hartu behar du kontuan, eta hortik abiatuta egin euskalduntze integralerako planteamendua. Plangintza hori bideratuko duen dinamizatzaila finkatzea funtsezkoa da. Administrazioak bitarteko guztiak jarri beharko lituzte plangintzaren zerbitzuan.

Neurri zehatzak hartzen

Aipatzen diren ezaugarri horiek aurrrera eramateko, hainbat aldaketa egin behar dira, bai indarrean dagoen legediari begira, bai euskalduntzeari es-

kaintzen zaizkion bitartekoi dagokionez.

Hori jakinik, kanpainaren bultzatzaileek hainbat neurri proposatu dituzte. Egungo legedietan aldaketa egitea da bat. Eta beste bat eskolaren euskalduntzea bultzatzeko eta bermatzeko institutu bat sortzea. Horrek, eskola euskalduntzeko plangintza orokorra bideratuko luke, Euskal Herri osoko ikuspegiaz, Euskal Herri osorako eta gizarte eragileek bultzata. Administrazio publikoei begira, euskalduntze prozesuarekiko babesak eta beharrezko finantziarioak aldarrikatu dute. Horrez gain, euskalduntzen ez diren herritarrei administrazioek doako euskalduntzea bermatzea ere eskatu dute.

Adi mobilizazioei eta deialdiei

Otsaila arte iraungo duen kanpainarako erakusketa ibiltari bat prestatu dute, eta dagoneko herriz herri dabi. Horrekin batera, hainbat hitzaldi emango dira ikastetxeetan eta herrietan. Abenduaren hasieran akanpada bat egingo da Gasteizen, eta abenduaren 3an manifestazioa. Urtarrilean Baionan egingo dira mobilizazioak eta otsailean Iruñean.

Beste neurrien artean, eskolaren euskalduntzea bultzatzeko eta bermatzeko institutu bat sortuko da


Argitalpenak



Geneak, herriak eta hizkuntza

L. Luca Cavalli-Sforza
GAIK

Planeta osoko mapa genetikoa egiten du korrelazioan jariz beste hainbat erreferentzia historikorekin: arkeologia, hizkuntzalaritza, paleoantropologia, migrazioak, demografia... Datu horien sintesiarekin giza espeziearen sorreraren eta azken 100.000 urteko garapeneraren ikuspegi berri bat ematen du, eta geroari buruz itxaropentsu dago.



Yako eta lurra

Ixiar Rozas
EREIN

Yako, uharte batean munduratu zen neska, lur bilakatu da. Sua izan zen hasieran, gero haize bihurtu zen, eta orain lurra. Izan ere, sua, ura, lurra eta airea denak, sua, ura, lurra eta airea behar ditu. Orain, lur delarik, beste bizimodu berri bat hasiko du, senitarte berriarekin batera eta haren gorabeherak kontatzen dira liburu honetan. *Auskalo* bildumaren barruan argitaratu den liburua da.



Korri, Xalto eta Brinko asto ganean Guadalupera doaz

Mikel Susperregi
ORRATX

Lezoko Orratx kultur elkarteak argitatzen duen *Ixerka* bildumaren azken alea da honako hau. Korri, Xalto eta Brinko pailazoak protagonista diren ipuin honetan, aurrekoetan bezala, herri inguruko txokoak eman nahi dira ezagutzera; oraingoan Guadalupeko bidea. Hori guztia, noski, ipuin atsegina eta dibertigarri bat tarteko dela, pailazoaren abenturak kontatuz.



Alaba adoptatua naiz, eta zer?

Kirmen Uribe
Mikel Valverde
ELKARLANEAN

Andereñoak familiako zuhaitz genealogikoa egiteko esan die ikasleei. Lu neskatilak, ordea arazo bat du, berak dena bikoiztuta baitauka. Bi aita ditu, bi ama, lau aitona, lau amona... *Eta zer?* bildumako liburu berri honetan egungo familia aniztasunaren gaia lantzen da.



Zeruko junkkoa

Roger Leloup
SAURE

Txinan girotutako istorio bat kontatzen da komiki liburu honetan. Yoko Tsuno neskatua enperadorearen hirugarren emazte hilarengana gerturatu da herensugearen bultzadaz. Itxuraz panpina eta bolatxo soil batzuek abentura arriskutsu eta misterioz bategan bilduko dituzte neskatua eta bere ondorengoak. Euskarazko komikigintzaren beste ekarpen bat da.



Bi otso zuri

Antonio Ventura
IBAIZABAL

4 urtetik aurrerako haurrei eskainitako liburu honetan testu motzak agertzen dira, eta horien aurrean marrazki handiek hartzen dute protagonismoa. Liburu handia izanik, marrazkiek indar eta esanahi handia hartzen dute. Bi otseme mendi aldera abiatzen dira intziri bat entzun ondoren. han topatzen dituzte otseme zauritu bat eta otsokumea.

Hizkuntz eskubideak ezagutzeko gida jarri digu eskura Behatokiak

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak *Hizkuntz eskubideak: ezagutu eta eutsi* izeneko unitate didaktiko bat prestatu du. Eskoletan lantzeko atondutako liburu honen helburua da gazteak jabetzea eta ezagutzea zein hizkuntz eskubide ditugun eta zer egin daitekeen horiek urratzen badira.

Horretarako, liburua gogoetaz eta ariketez osatu dute, eta honako atal-tan banatua dago: zer dira hizkuntz eskubideak?, Euskal Herriko legeek aitortzen al dizkigute hizkuntz eskubideak?, Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta 902.194.332 www.euskararentelefonoa.com. Atal bakoitzean dauden ariketekin hainbat lan egiteko aukera zabalzen da: dokumentuak aztertu, kon-

paratu eta hausnartu, egoera errealak aztertu eta ulertu, Interneten informazioa bilatu... Horiek guztiak landu eta egin ondoren, gazteak euskaldunoi dagozkigun hizkuntz eskubideen jakitun izango dira eta hizkuntz eskubideen urraketen berri emateko aukera izango dute.

Horrez gain, unitate honen bukaeran jakingo dute munduan, oraindik ere, hizkuntz aniztasuna oso handia dela, baina, era berean, hizkuntza horietako asko desagertzeko zorian daudela.

Behatokiak funtsezkotzat jotzen du jendea hizkuntz eskubideen kontzeptuaz jabetzea, eta unitate honek horretan lagunduko du.



Material hau baliatzeko, irakasleentzako zehaztapan didaktikoak eta ariketen erantzunak helbide honetan zintzilik daude: www.behatokia.org

Koloreak eta formak oinarri dituzten puzzle berriak kaleratu ditu Argiak

“Mokogorri puzzlea puzzle” izenez bataiatu ditu Argiak kaleratu berri dituen bi puzzleak. 6 urtetik gorakoentzako moduko puzzle hauek ez dute ohiko puzzleen argazki edo marrazkirik osatzen bukaeran, forma geometriko koloretsuz osatutako irudiak baizik. Piezak ere ez dira ohikoak, hirukiak eta hexagonoak baizik.

Puzzle baten bukaeran koloredun triangelu handi bat osatu behar da, eta horretarako 25 hiruki txikiz baliatu behar da. Horiek elkartuz osatu behar da irudia, baina ez nolanahi: irudi txiki bakoitzak hiru kolore ditu eta ezinbestekoa da elkartzen diren bi aldeak kolore berekoak izatea. Beste modu batera esana, koloretako dominoaren antze-



koa litzateke. Beste puzzlearen kasuan, 9 hexagono eta 16 iruki erabiliz osatu behar da bukaerako irudia.

Irudimena, begirada, forma, koloreak... denak hartu behar dira kontuan Mokogorri puzzleak osatzeko.

Gasteizko haur eskolen

Haur Hezkuntzaren ibilbidea inoiz eroso izan ez bada ere, sekula ez du hartu gure egun Administrazio ezberdinek zuzentzen dioten adinako erasorik.

Hamarkada asko dira jadanik haur txikiekin lan egiten dugunok haurren heziketa defendatzen hasi ginela, haur hezkuntza kontzeptua ezartzea lortu arte. Eta zenbaitetan lortu genuen.

Kontzeptu aldaketa horrekin batera udaletxe batzuek lehengo patronatuak eta giza zerbitzuen fundazioak egokitzeari ekin zioten, eskola berriak sortu zituztelarik eta gizartearekin zein haurtzaroarekin konpromisoa hartu zutelarik.

Horrekin guztiarekin bat etorritik, Gasteizko Udalerriaren eskolaren sarea eratzten hasi zen, gaur egun 17 eskolaz osatua eta ia 30 urtetako hezkuntza esperimentziala duena.

Egia esan, Haur Hezkuntzaren historia milaka lagunen historia da, beraien borondateari eta sinesmenari esker iritsi baikara errealitate honetara.

Baina uda honetan, bat-batean, Gasteizko alkatearen dekretuz, hirian erabat finkatuta genuen hezkuntza eredu bertan behera gelditu da. Ezarri digun berrantolaketak ziurtasun gutxi eta kezka asko sortzen dizkigu. PPEk, lanaren eta familiaren arteko bizitza adostu nahian, Eusko Jaurlaritzak 0-3 zikloa arautzen duen Kalitate Legearen filosofiarekin bat etorritik, dekretua egin zuen.

Bi dekretu horiek erabat baztertuta geneukan bidea hartzen dute; hots, 0-3 zikloan haur-zaintzeari garrantzia ematen diona. Gogora ditzagun Malaguzzen hitzak: *“Zaintza hutsa gizakiaren minbizia da”*. Medikuntza arloan osasun asistentziako zentruak osasun zentru bilakatu dira, garai bateko gizarte-laguntzaileak gizarte langileak dira egun. Asistentziak beharra, gaitasun

falta, karitatea, gogorarazten dizkigu, eta herriko sektore bat asistentziara baztertzea ez da gizarte aurrerakoi bati dagokiona. Encina Serrano Hezkuntza zinegotziak hau esan du: *“Orain dauzkagunak hezkuntza teknikariak dira, baina zerbitzu honek prestakuntza asistentziala behar du, ez, ordea, hezkuntzan prestatuak”* (El Periódico de Alava, 15-06-04).

Ez dezagun haurtzaroa ahuleziarekin eta ezintasunarekin lotu. Haurrak hazten ari diren eta eskubideak dituzten pertsonak dira. Ez diezazkiegun haurtzaroak dituen aberastasunak eta ahalmenak ukatu.

Inork ez du zalantzan jartzen haurraren nortasun osaketan familia dela lehen erreferentea. Era berean, haur eskola haurra hazteko inguru aberatsa dela ere esan dezakegu.

Haur Hezkuntzako zerbitzuen kalitate indizeen gaineko ikerketek honetan dihardute:

- Aniztasunezko eta zaindutako espazioak.
- Egokitutako hornikuntza.
- Heziketa Proiektu ona eta antolamendu egokia.

Heziketa ezin da bideratu elkarrizketarik gabe. Era berean, eskola batek elkarrizketarik gabe ezin du aurrera jo; hezitzaileen arteko elkarrizketa, gurasoekin, haurrekin...



gaineko hausnarketak

- Heziketa bidetik joanez, norbana-koaren arreta bermatuko duten ratioak.

- Etengabeko formakuntzan ari den profesional bakarra.

- Hezkuntza bikotea: bi pertsona, bi hezitzaile, biak lan maila berekoak, soldata berarekin, funtzio berarekin, haur talde baten tutoretza arduradunenak, eta lanordu gehienetan elkarrekin lan egiten daudenak.

- Familiarekiko harremanen garrantzia: haur eskolek beste familiekin eta hezkuntza profesionalekin harremanak bideratzen dituzte.

- Haur Eskolan egiten den guztia hezigarria da. Budapest-eko Lóczy Institutuak frogatu du profesionalen eguneroko bizitzan prestakuntza zein beharrezkoa den; jatea, lo egitea, pardekaldak aldatzea eta abar hezkuntza dela ahaztu gabe.

Aipatu ditugun indize horiek minimoak dira; ez dira bakarrak, ezta itxiak ere. Hezkuntza lan honen beste kalitate indize bat gure eguneroko lana berraztertzea da.

Eta orain eskubideaz mintzatuko gara. Haurren eskubideak, heziketa leku egokiak edukitzeko eskubidea. Familien eskubideak, batez ere amenak,

lan egiteko eskubidea. Beraz, bai esaten diogu egutegi malguari, baina haurrek oporrak izateko eta bere familiekin egoteko eskubidea dutela kontuan hartuz. Eta eskubide horiek guztiak haur eskoletako langileen eskubideekin bateratzen ere jakin behar dugu. Haurrak, jaiotzen denetik, kalitatezkoa eta publikoa izango den heziketarako eskubidea du. Horregatik, gizartearen eskaerak ezin dira inoiz eskubide horren aurka joan.

Haur Eskolako Hezitzaileak garenaz, administrazioari, eta bereziki udal-letxeari, hezitzailetzat hartzea eskatzen diogu. Beraz, hitzarmenak eta egutegiak negoziatzerakoan, batez ere gure eskolen kalitatearengatik, errespetuz trata gaitzatela eta guztioi baldintza berak eman diezazkigutela eskatzen diegu. Ez daitezela merkatuko legeez baliatu, aintzakotzat har gaitzatela, ez dezatela haurren kostuekin, orduekin, egunekin, oporraldiarekin eta abarrekin litxarkeriarik egin, gure lana oso garrantzitsua baita.

Gasteizko udal-letxeak Hiri Hezitzaileen Gutuna sinatu zuen. Gutun horrek hauxe dio: "Hiria hezitzailea izango da, betiko funtzioez gain (ekonomikoa, gizartekoa, politikoa, eta zerbitzu presta-

kuntza), hezitzaile funtzioa ere baduela bereganatu, landu eta garatzen duenean, bere helburua formazioa, promozioa eta biztanle guztien garapena (haur eta gazteengandik hasita) lortzeko asmoa eta erantzukizuna bereganatzen dituenean.

0-3 arteko heziketa garrantzitsuegia da politikoen esku uzteko. Heziketa bera giza helburua da, haur eskola etorkizunaren oinarria baita.

Dena agerian jar dezagun. Hiri honetako udal-letxeak eskolak egunean 11 ordu eta 11 hilabetez irekita egotea eskaintzen die familiei, nahiz eta horiek plaza gehiago eskatzen duten. Ikasturte honetarako 350 ume haur eskoletara joateko aukerarik gabe geratu dira, baita beste hainbat jantokirik gabe ere (eta hobe, udal-letxearentzat, jakina, menu berezietaz hitz egiten badugu).

Heziketa ezin da bideratu elkarriketarik gabe. Era berean, eskola batek elkarriketarik gabe ezin du aurrera jo; hezitzaileen arteko elkarriketa, gurasoekin, haurrekin... Hezitzaile guztion eta administrazioaren arteko elkarriketa.

Hausnarketa, pentsamendu, erabaki eta ideia horiek guztiak 0-3 artekoekin ari diren profesionalengandik (Malaguzzi, Pikler, Viçens Arnaiz, Hoyuelos, 1996.ko Delors-txostena...) jaso ditugu eta gu bat gatoz beraiekin. Gure lana eta beraiena bide beretik doaz. Beti bide beretik.

Galdetzen denean
erantzun egin behar da.
Norbaitek erantzuten duenean
entzun egin behar dugu

Vitoria-Gasteizko Udal Haur Eskoletako Hezitzaileak



Muga guztien gainera ...euskaraz!

Portugaleteko misio lana Ballonti BHI

Portugalete. Ezkerraldea. Giro erdalduna. AEK. D ereduaren gorakada. Dena nahasten den leku horretan dago Ballonti Bigarren Hezkuntzako ikastetxea. Memento honetan D eredia soilik daukan zentro publiko bakarra da, besteek eredu bat baino gehiago eskaintzen baitituzte. Orain dela 14 urte A ereduari ikasten zuten Ballontiko ikasleak, eta gaur egun D ereduari. Poliki-poliki gauzatutako eraldaketa izan da, lan asko eginez eta pauso motzak eranez, eta goxotasunez beti.

“Barakaldokoa naiz eta, daukat paro obrero horregatik euskaltegira noa ni egunero...”

Nork ez du gogoratzen Oskorrik abesten duen kanta hori? Bertso horietan deskribatzen den antzeko egoera bizi dute Portugaleten ere. Giroa guztiz erdalduna da, eta euskara ikastetxeko kontua da sarritan. Hortik kanpo, oso gutxi entzuten da. Portugaleten Astileku ikastola eta Kanpazar eskola lan handia egiten ari dira. Haur txikiak euskaraz aritzen dira euren artean. Denak familia erdadunekoak izanik, euskaraz egiten dute.

Gaztetxoen kasuan, ordea, ez da gauza bera gertatzen. Adin kontua izango da. Ballonti instituturajotzen direnean, gaztelania da jaun eta jabe. Eta gero, handik alde egin ondoren, berriz ere euskara errekuperatzen hasten dira. Trantsizio garai horretako gazteekin egiten dute lana institutuko irakasleek.

Ia 400 gazteren ikaslekua da, eta maila bakoitzean bi edo hiru lerro dauka, denak D ereduari. A ereduko zentroa izatetik, D ereduko izatera pasatzen da Ballonti Bigarren Hezkuntzako ikastetxea. 14 urtetan eman den aldaketa horren lekuko izan dira Mirian Lizarralde eta Helena Chamosa irakasleak, prozesua zuzenean bizitu baitute.

Zenbait irakasle bultzata hasi zen prozesua, beraiek egin baitzuten D eredu irekitzeko eskaera. Euskaraz ira-

kasteko interesa eta nahia bazegoen. Mirian Lizarralde Euskarako irakaslea da eta ondo gogoratzen ditu hasierako une haiek. *“Poliki-poliki hasi ginen. Ni Eibartik etorri nintzen eta ingurune hartatik hona etortzea misioetara etortzea bezala zen. Ez dakizue zer den. Benetan, hau misioetara etortzea bezala da. Ikasleak ez zeuden ohituta euskara entzutera, eta gutxinaka-gutxinaka egindako lana izan da urteotakoa, goxotasunez”*. Goxotasunez egindako lana izan dela azpimarratzen du, horrela lortu delako jendeak euskara onartzea, edo behintzat kontra ez jartzea. Eta horrek asko lagundu omen du.

Izan ere, misio gune horretako giroa latza da. Ikasleak ez dira familia euskaldunetakoak, hots, gurasoak ez dira euskaldun zaharrak; eta euskaraz daki-



ten bakarren batzuk baldin badaude, euskaldunberriak dira. Euskara guztiz artifiziala da eurentzat, eskola barruko gauza bat. Kalerajoaten direnean, dena erdalduna dela ikusten dute. “Aita” eta “ama” entzuteko orde, “papa” eta “mama” entzuten omen dira kalean.

Euskara hobetuz proiektua

Orain dela 4 urte inguru Mirian Lizaralde eta Luisma Landaluze irakasleek “Euskara hobetuz” izeneko proiektua jarri zuten abian Hizkuntza Normalkuntza Planaren barruan. Irakasleek eta irakasleek euskaraz egiten dituzten akatsak zuzentzea da helburua. Horretarako, bi astean behin orri bat prestatzen dute eta gela bakoitzean bereziki horretarako eskegita dagoen kartoi mehe batean jartzen dute, Euskarako irakaslearekin irakur eta komenta dezaten.

Horri horretan euskarazko ohiko akatsak eta zuzenketak agertzen dira. Orriak formatu jakina du eta berehala identifikatzen dute. Orri bakarra da, laburra, zehatza eta erraz ikusteko modukoa. Izenburua letra euskaldunarekin agertzen da beti. Gaizki dagoena gorritz agertzen da eta ondo dagoena berdez. Adibideak eta kasuak ikasleei eta irakasleei entzundakoak dira. Irakasleen artean euskaldunberri asko dago, eta batzuetan ohitura edo joera okerrak dituzte. *“Modu horretan, zuzenean esateko partez, zeharka jakinarazten zaie, eta errazagoa da, zuzenean esatea zaila baita”* dio Helena Chamosak. *“Modu goxoa eta ona da. Jendeak irakurtzen duenean, kontura daiteke berak akats hori egiten duela eta zuzendu dezake”.*

Orri batzuetan, akatsez gain, beste zenbait gai ere jorratzen dituzte: euskara aberasteko esamoldeak, atsotitzak, Mantxutetik hartutako lokuzioak, umorezko gauzak, jaiegunei buruzko kontuak...

Teknologia berriez ere baliatu dira orri hauen zabalpena egiteko. *“Orain dela bi urte interesa zutenei e-maillez bidaltzen hasi ginen. Dexente dira orria modu horretara jasotzen dute-*



nak, eta ikasle ohiek ere jasotzen jarraitzen dute” dio Chamosak.

Ikasleen inplikazioa ez da beti bera izan. *“Orain dela bi urte, adibidez, ikasle batzorde zoragarria zegoen”* kontatzen du Chamosak. *“Gauza asko antolatzen zituzten: euskal kirolak, bertso afariak... baina bukatu zuten eta kito. Memento honetan ez dago ikasle batzorderik eta nabaritzen da”.*

Funtsezkoa da irakasle guztiak inplikatzeari

“Euskara ez da Euskarako irakaslearen kontua, eta horregatik hasi ginen proiektu honekin” dio garbi Lizaraldek. *“Hasieratik, normalkuntza planarekin hasi ginenetik, ingurune honetan euskarari garrantzi handia eman behar geniola pentsatzen genuen, eta Euskarako irakaslearen lana soilik ez zela esaten genuen. Denok gara eredu eta irakasle askok hutsune handiak zituzten. Irakasleen zein irakasleen euskara aberastea zen gure nahia. Irakasle batzuk ez daukate etxean euskaraz mintzatzeko aukerarik, eta beste batzuk kutsatu egiten gara ingune erdaldunean. Horregatik, laguntza behar genuela pentsatzen*

“Euskara hobetuz” proiektua ikasle eta irakasleentzat da, ingurune horretan denek baituzte zer hobetua.

genuen”. Garbi zeukaten eta dute denak direla Euskarako irakasleak. Izan ere, ikasgai horretako irakaslearekin astean hiru edo lau ordu baino ez dira egoten; eta beraz, gainontzekoengatik ere ikasten dute.

Horregatik, irakasleentzako ikastaroak antolatzen dituzte. Eta denak inplikatu ez arren, asko dira interesa erakusten dutenak. Kontuan hartu behar da lehen A ereduko zentroa izanik, profirik gabeko irakasle asko zegoela. Horietako askok alde egin behar izan zuten, eta gelditu zirenek euskara ikasi eta titulua edo profila eskuratu behar izan zuten. *“Horientzat euskara oraindik ere oztopoa da eta hala aitortzen dute eurek. Euskaldunberriak edo berriro ikasitakoak dira asko, eta euren ikasketak gaztelaniaz egindakoak. Beraz, orain hori euskaraz bizitzea edo transmititzea asko kostatzen zaie”* kontatzen du Lizarraldek.

Ikastaroak denentzat

Ikasleentzat ere antolatzen dituzte ikastaroak EGA titulua atera dezaten. *“Batzuk nahikoa izaten dute eskolan ikasitakoarekin eta maila polita lortzen dute. Beste batzuek, aldiz, aparte-ko eskolak behar izaten dituzte”* dio Chamosak.

Gurasoentzako ikastaroak antolatzen ere saiatu izan direla diote. Eskolako guraso elkartearekin berba egin zuten, baina ez omen zuten interes handiegirik erakutsi. Interesa dutenak beraien kontutik joaten omen dira euskaltegira.

Hasieran gurasoak kontzientziatuagoak omen zeuden. *“Benetan jakitun ziren Atik Dra aldatu ginenean. Kontzientziatuta zeuden; egun, aldiz, normaldu egin da”.*



Herriko normalkuntza eza

Ikastetxean euskararen normalkuntza bidean urratsak ematen ari diren heinean, ez da gauza bera gertatzen herrian. Behin baino gehiagotan bildu dira bai Ballontikoak bai herriko beste ikastetxeetakoak udaletxeko ardura-dunekin, baina ez dute deus aurreratu. *“Hitz onak bai; beti bai, bai, bai, baina gero ez, ez, ez da”*. Udaletxean ez dago Euskara Zerbitzurik eta bileretan gaztelaniaz mintzo dira. *“Iaz oso ikastaro polita egin genuen HABEko euskaltegiarekin, oso ona, ederra eta aurten jarraipena egiten saiatu gara. Baina ez dugu lortu, udalak ez duelako nahi izan irakasle berri bat kontratatzerik. Udaletxetik iristen zaiguna negargarria da”* dio Chamosak.

Udalaren laguntza garrantzitsua da, ikastetxean egiten den lanarekin soilik ezin delako lortu euskararen hedapena. Kiroletako edo aisialdiko begiraleak euskaldunak izan daitezen eskatu dute behin baino gehiagotan. Are gehiago, irakasle ohiekin poltsa bat egin zuten, baina udalak ez zuen onartu. Musika eskolako irakasle bat, kasualitatez, euskalduna izan liteke, eta orduan eskola euskaraz jaso dezakezu. Baina matrikula egiterakoan ez dago euskarazko eskaintzarik.

Beti aldapa gora

Ikastetxean egiten den ahaleginak askotan ez ditu emaitza nabarmenak ematen. Euskaraz hitz egiteko joerarik ez dute gazteek, eta korridoretan, autobusean, jantokian... gaztelaniaz mintzo dira; sarritan irakasleei ere hala zuzentzen zaizkielarik. Ikasleentzat oso zaila dela dio irakasleek. *“Eskolako gauza bat da; ikasketak egiteko, gehienez EGA titulua ateratzeko eta hor gel-*

ditzen da dena, kaleratu gabe”.

Hala ere Lizarraldeko oso gustura dagoela dio. *“Lan asko egin ahal dela pentsatzen dut. Borondate handiko jendea badago eta asko laguntzen dute. Baina gogorra da, oso gogorra”*. Eta hori dioenean Ikabil proiektuaren adibide jartzen du.

Ikabil zentro desberdinetako ikasleak trukatzeko proiektua da, betiere euskararen erabilpena bultzatzeko. Bada, trukerako ikastetxe bat topatzea oso zaila egiten zaiela diote Ballontiko irakasleek, inork ez baitu Portugaletera etorri nahi. *“Ikasbilek, printzipioz, euskaldunen arteko harremanak bultzatzea eta murgiltzea du helburu, eta noski, hemen nor murgilduko da? Inork ez du interesik guregana etortzeko”* dio penaz Lizarraldeko. Behin egin zuten trukea Markiñako ikastetxe batekin eta dena oso ondo ateratu zen, baina hala ere beste leku euskaldunago bat nahiago zutela esan zieten. *“Eta hori oso gogorra da guretzat”*. Ballontiko euren ikasleek euskara entzutea eta euskaraz bizi ahal dela ikustea nahi dute. Eta Markiñara joan zirenean horretaz jabetu ziren: badaudela giro eta herri euskaldunak eta jendea euskaraz bizi dela. Izan ere, Portugaleten errealitate hori ez dute ikusten.

Belaualdi berriaren esperantza jarrita

Lizarraldeko esperantza egungo

ikasleengan jarrita dauka. *“Seme-ala-bak edukitzen dituztenean eta eurekin euskaraz egiten hasten direnean, aurrerapausoa emango dugu. Egiten ez badute, akabo gure lan guztia. Gurea isilpeko lana da, etorkizuneri begira”*.

Gaur egungo ikasleek, orain artekoek ez bezala, ikasketak euskaraz egin dituzte txiki-txikitatik eta “Pintto-pintto” abestu izan dute. Horregatik, beste esperientzia bat edukiko dute. Etxean euskaraz egiten badute, eskolan ere bai eta udaletxean ekintzetarako euskara eskatzen badute, beste urrats bat emango da.

Ikastetxean lehenengo urratsa ematen ari dira, baina dena ezin da eskolatik egin, hortik at ere faktore ugari daude. Jose Luis Mugertza irakasleak ere hala dio: *“Guk egiten duguna ez da nahikoa. Gotzon Garatek esaten duen moduan, boterea lortu behar dugu, bestela berba eta berba. Gaur egun euskarak ez du ezertarako balio, hemen euskarak ez du dirurik ematen. Ez da nahikoa haurrak eskolara bidaltzea gero kalean ez badute inolako beharrik ikusten. Bestela, hau petatxu bat da”*.

Kontu serioa da, baina irakasle hauek irribarrez mintzo dira. Badakite lan gogorra dutela, aldapa gora, baina animorik ez zaie falta. Hori da soberan dutena, eta elkarri transmititzen diote, gainera. Egiten dutena gogoz egiten dute, eta hori baino gauza hoberik ez da askotan. •





Pirritx eta Porrotx zinemara doaz

Zatoz ikustera!!

Azaroak 14, Donostiako Kursaallean estreinaldia, 11:00etan
Arratsaldean, 4:30ean eta 6:30ean leku berean.

Azaroak 16, Gasteizko Guridi zineman
Azaroak 17, Errenteriko Hiria kultur gunean
Azaroak 18, Iruñeko Golem zineman
Azaroak 19, Ordiziko Herri antzokian
Azaroak 20, Arrasateko Amaia antzokian
Azaroak 24, Zarauzko Modelo zineman
Azaroak 26, Tolosako Leidor antzokian
Azaroak 30, Irungo Amaia kultur zentroan
Abenduak 1, Bilboko (Indautxu) El Carmen aretoan
Abenduak 2, Azpeitiko Soreasun
Abenduak 4,... Durangoko San Agustin kultur gunean

DVD eta bideo
euskarrian salgai
Durangoko azokan

Zure herrian emanaldiren bat antolatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 371 408 eta hikhasi@hikhasi.com

Filmaren laburpena

Ilargiak gauero eta jendea konturatu gabe sortzen eta isurtzen ditu loreak lurrera; naturari eta pertsoneri bizitza eta kolorea ematen dieten loreak.

Batzuek, lore guztiak nahi dituzte eurentzat, botere magiko handiak baitituzte. Horretarako, lurreko lore guztiak biltzeaz gain, ilargiari kortxo batez tapatuko diote ahoa. Horrela ilargia haziz, gizenduz joango da eta ilargi betea denean, potoloen dagoenean, tramankulu batekin zurrupatuko dute, barnean dituen lore guztiak eurentzako izan daitezzen, eta handik aurrera loreak eurentzat bakarrik egin ditzan. Gero, eta mundua ez konturatzeke, ilargiaren irudi bat proiektatuko dute zeruan.

Haurrak, lehenengo lore baten bila dabilta (etorkinaren senidea sendatzeko, lorea sendagarri baita); gero, besteen asmoak deskubritzean, ilargia bera osatu nahiko dute, loreak sortzen jarrai dezan, eta natura lehenera itzul dadin.

hh
hik hasi

